

ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOKO GRADUA

IKASKETA KLASIKOEN SAILA

2017/2018 ikasturtea

**PLAUTOREN *MILES GLORIOSUS* (670-1435)
ANTZEZLANAREN
EUSKARAZKO ITZULPENA ETA OHARRAK**

Egilea: Paula Garcia Iraeta

Zuzendaria: Gidor Bilbao Telletxea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
1.1. Plauto	1
1.2. <i>Miles gloriosus</i>	2
2. IRUZKINA.....	3
2.1. Jatorrizkoaren estiloa	5
2.2. Kultura-elementuak	32
2.3. Hitz jakinak	44
2.4. Jatorrizkoaren arazoak	56
3. ITZULPENA: <i>MILITAR HARROPUTZA</i>	65
4. BIBLIOGRAFIA	111

1. SARRERA

Gradu amaierako lanean Plautoren *Miles Gloriosus* antzezlanaren itzulpena aurkeztuko dut, baita itzulpen-prozesua eta arazoak azalduko ere.

Itzulpenari buruzko iruzkina egin aurretik, beharrezko deritzot Plautori eta *Miles gloriosus* obrari atal bana eskaintzea, lanaren oinarria eta abiapuntua argi geratzeko baliagarriak baitira.

1.1. Plauto

Titus Maccius Plautus¹ (K.a. 254, Sarsina- K.a. 184, Erroma) komediagile latindar oso garrantzitsua izan zen. Gaztea zelarik, Erromako antzerti-konpainia batean egin zuen lan.

Gainerako komediagile latindarrek bezala, Plautok ere greziarregandik ikasi zituen komediak sortzeko oinarriak, hots, egitura, argumentua eta pertsonaia tipoak. Plautok Greziako komedia berria eredu izan zuen arren, ez zen mimetikoki kopiatzera mugatu, erromatar gustura egokitu eta izaera propioa eman zielako. Bere helburua herriari atsegin ematea zenez, ez zuen pertsonaien psikologian gehiegi sakondu eta baliabide nagusizat komikotasuna eta karikatura izan zituen. Hala, erabilitako pertsonaiak behin eta berriro errepikatzen diren «tipoak» dira: militar harroputza, etxeko esklabo alfer eta argia, prostituta lotsagaldia edo agure lizuna. Ohiko gertaerak oinarri izan bazituen ere, akzioa eta elkarrizketak maisutasun handiz konbinatu zituen. Obretan erabilitako hizkuntza bizia eta arrunta da, ahozko herri-hizkeran oinarritua.

K.a. 210. urtean hasi ziren bere obrak antzezten; berehala lortu zuten izugarritzko arrakasta, eta XVIII. mendera arte arrakasta handia izan zuen Europako antzerkigintzan. Bere eragina idazle askorengan igar daiteke: Boccaccio, Shakespeare, Molière... Plautoren komedia ezagunen artean *Anfitrioi*a, *Lapikoa* eta lan honetan landuko dudana *Militar harroputza* daude.

¹Atal hau idazteko iturri nagusia Aldekoa & Olaziregi 2012 izan da.

1.2. *Miles gloriosus*

Aipatu bezala, Plautoren obra arrakastatsuenetako bat dugu *Miles gloriosus*. Hitzaurrean adierazi zuenaren arabera, grekozko bertsio paraleloa *Alazon* obra izan omen zen. Idazlearen lehen etapan kokatu izan dute obra, erritmo desberdin oso gutxi erabili zituelako. Hala eta guztiz ere, efektu komikoz josirik dago eta irakurleari zaila egiten zaio barreari eustea.

Argumentua

Pleusikles (Atenasen bizi den militarra) kanpoan den bitartean, Pirgopolinizesek (Efesoko militarra) Filokomasia (Pleusiklesen neskalaguna) bahitu eta Efesora eramaten du. Paestrion (Pleusiklesen esklaboa) gertatutakoaz jabetzean, bere ugazabaren bila abiatzen da, baina bidean pirata batzuek bahitu eta Pirgopolinizesen esklabo izateko bidaltzen dute. Efeson dagoela, bere lehenengo ugazabari, Pleusiklesei, idazten dio. Ondorioz, Pleusiklesek Efesora etortzea erabakitzen du eta familiako lagun baten (Periplektomeno) etxean hartzen du ostatu, hain zuzen ere Pirgopolinizesen aldameneko etxean. Orduan, Paestrionek pasabide bat irekitzen du bi etxeen artean Pleusiklesek eta Filokomasiak elkar ikusteko aukera izan dezaten. Hitzordu horietako batean, elkar musuka ikusten ditu Eszeledro izeneko esklaboak eta asalatu egiten da. Ondoren, Paestrioni plan bikain bat bururatzen zaio Pirgopolinizes engainatu eta Filokomasia bere maitearekin Efesora bueltatzeko: Pirgopolinizesek hain atsegin dituenek emakume ezkonduak, Periplektomenoren emazte gaztea berarekin maiteminduta dagoela esaten diote eta berarekin egoteagatik senarra etxetik bota duela. Orduan, Paestrionek Pirgopolinizesi esaten dio Filokomasiak libratzeko aukera bikaina suertatu zaiola, ahizpa bikia eta ama Efesotik etorri zaizkiolako bisitan. Nola ez, militarra tranpan erortzen da eta, bere maitale berriaren etxera doanean, Periplektomenorekin eta bere esklabo armatuekin egiten du topo. Jipoi ederra ematen dioten bitartean, Pleusikles, Filokomasia eta Paestrion jadanik itsasoratu egin dira, Atenaserako bidean.

Egitura

Obraren egiturari dagokionez, hainbat zati desberdin ditzakegu. Lehenik eta behin, lehenengo ekitaldiko elkarrizketak militarra aurkezteko balio du. Jarraian, Palestrion esklaboaren hitzaurrea dugu, zeina publikoari zuzentzen zaion obrari buruzko informazioa emateko. Orduan, militarra desagertu egiten da IV. ekitaldira arte, bitarte horretan tranpa zehatz-mehatz antolatzen ari baitira gainerako pertsonaiak. Amaiera hainbesteko komikotasunez dago kontatua, pertsonaiek ere ezin diotela barreari eutsi. Efektu komikoa bikoitza da, izan ere, lehenik pertsonaiek plana publikoaren aurrean prestatzen dute, eta gero dramatikotasunez gauzatu.

Pertsonaiak

Plautok komediaren figura tipikoak bikain irudikatu zituen: Periplektomeno, agure alai eta adeitsua; Pleusikles, gazte galaia, inoiz baino lotsatiagoa eta kikilagoa; militar harroputza, gainerako antzezlanetan baino irrigarriago irudikatuta; Filokomasia, neska-lagun gaztea, obrako heroia; Akroteleutia prostituta eta Milfidipa haren esklaboa, emakumezkoen berezko etorriaren adierazle; Palestrion, esklabo fidela, zinismoz eta zuhurtasun paregabez bere ugazabaren nahi guztiak betetzeko prest.

2. IRUZKINA

Atal honetan itzulpenari buruzko hainbat alderdi aipatu nahi nituzke, esanguratsuenak iruditu zaizkidalako.

Aipatu beharreko aspektuak lau multzo nagusitan sailkatzea erabaki dut, ulerterrazagoa izan dadin: jatorrizkoaren estiloa, kultura-elementuak, hitz jakinen itzulpena, eta jatorrizko testuaren arazoak. Hasteko, jatorrizkoaren estiloa aztertuko dut, izan ere, oinarrizko elementua dela deritzot. Bigarrenik, kontuan harturik jatorrizkoa idatzi zen garaia eta gaur egungoa guztiz ezberdinak direla, kultura-elementuak aztertuko ditut eta horien itzulpenaz egingo dut gogoeta. Hirugarrenik, itzultzean hitz jakin batzuekin izan

ditudan arazoak azalduko ditut. Laugarrenik, jatorrizko testuaren zenbait arazo aztertuko ditut.

Itzulpena egiteko eta, gerora, iruzkin hau osatzeko, hainbat bertsioz eta itzulpenez baliatu naiz:

- **Elebakarrak**

	Hizkuntza
Plauto – <i>Miles gloriosus</i> (The latin library)	Latina
Henry Thomas Riley – <i>The braggart captain</i> (1912)	Ingelesa
Román Bravo – <i>El militar fanfarrón</i> (1995)	Gaztelania
Mercedes González-Haba – <i>El militar fanfarrón</i> (1996)	Gaztelania
Manuel Mañas Núñez – <i>El militar fanfarrón</i> (2003)	Gaztelania

- **Elebidunak**

	Hizkuntza
Paul Nixon – <i>The braggart soldier</i> (1916)	Latina eta ingelesa
Alfred Ernout – <i>Le soldat fanfaron</i> (1932)	Latina eta frantsesa
José-Ignacio Ciruelo – <i>El militar fanfarrón</i> (1975)	Latina eta gaztelania
Wolfgang de Melo – <i>The braggart soldier</i> (2011)	Latina eta ingelesa

Iruzkin-lan honetako adibideak transkribatzean, Cirueloren bertsio elebiduna erabili dut gehienbat. Itzulpenen artean baliagarrienak gaztelaniakoak suertatu zaizkit (batez ere

Ciruelo 1975, Bravo 1995 eta González-Haba 1996). Halere, beti kontsultatu ditut ingelesezko eta frantsesezko itzulpenak, aukera zabalagoa izateko.

2.1. Jatorrizkoaren estiloa

Jatorrizko testuaren estiloa jatorrizkoa irakurri ahala eta itzultzen hasi aurretik aztertu beharreko elementua dela uste dut, izan ere, hura itzulpenean islatzen saiatzea oinarritzko premisa da.

Testuaren estiloak hainbat elementu barne hartzen ditu: erritmoa, tonua, erregistroa, bere idazkera ezaugarritzen dituzten elementuak... Hori dela eta, elementu horietako bakoitza banan-banan aztertzeko, azpitaldeak osatzea erabaki dut: erritmoa eta tonua, erregistroa, hitz-jokoak eta generoa ikusaraztea.

2.1.1. Erritmoa eta tonua

Plautok *Miles Gloriosus* obra bertso-lerrotan idatzi zuen arren, itzulpenean prosaz itzuli dugu, besteak beste, horrela zeudelako guk erabili ditugun zubi-testu guztiak.

Antzezlanak izaki, ahozko hizkeratik gertu dauden esapideak, makulu-hitzak eta erritmo arina nabarmentzen dira antzezlan osoan. Gainera, komedia denez, erritmoa are arinagoa da beste edozein generorekin konparatuta. Horrez gainera, tonu positiboa, bizia, bromazalea eta barregarria darabil uneoro eta gure itzulpenean jasotzen ahalegindu gara.

2.1.2. Erregistroa

Erregistroari dagokionez, Plautok herri-hizkeratik gertuko erregistroa erabili zuen, hau da, erregistro arrunta eta are behe-mailakoa. Euskarara itzultzerako orduan, erregistro arrunt hori islatzeko, besteak beste, hitanoa erabiltzea erabaki egokiena dela uste dut, hori baita euskaraz lagunarteko erregistroa edo behe-mailako erregistroa ongien

iradokitzen duena. Honen inguruko erabakiak Maialen Utrillarekin batera² hartu ditut, beharrezkoa iruditu zaigulako bi lanen artean koherentzia gordetzea.

2.1.3. Hitanoa eta hika

Behin hitanoa eta hika erabiltzea erabakita, haien funtzionamendua zehatz-mehatz aztertzeari ekin diot. Hala, ohartu naiz ez dagoela hitanoaren eta hikaren erabilera zehazten duen arau absolutu eta aldazkinik. Aitzitik, gehienbat erabileran oinarritutako ondorio edo irizpide ez beti argi batzuk besterik ez dira. Ondorio eta gogoeta horietako asko Xabier Alberdiren bi lanetan (1993; 1996) topatu ditugu.

Hala, hitanoa eta hika erabili edo ez zehazten dituzten bi elementu nagusi gailentzen dira: alde batetik, gramatika; beste alde batetik, aldagai soziolinguistikoak.

Gramatikari dagokionez, Xabier Alberdik (1996) adierazi zuenez, mendeko perpausetan ez da alokutiboa erabiltzen, baldintzazkoetan salbu, non hitanoaren erabilera gero eta zabalduago dagoen. Nola jokatu behar dugun argi eta garbi izateko, Ritxi Lizartzaren *Hitanoa mintza hadi, lagun! hika egiten ikasteko eskuliburua* kontsultatu dugu. Mendeko perpausei eta hitanoari buruz ari dela honakoa dio: “Perpau nagusia da hitanoaren eremua. Horrek ekartzen du zilegi ez jotzea oso hedatuta dauden hainbat erabilera” (Lizartza 2009: 87). Eta aurrerago honela laburbiltzen du bere erabakia: “Azken batean, horrek berak erakusten digu neurri batean tradizioetik eta batez ere ezagutza ezatik puztuz joan den erabilera ezin dela zuzentzat hartu” (Lizartza 2009: 91). Horrez gainera, galdera zein harridura esaldietan ere ez dago hitanoa erabiltzerik, eta aginterazkoetan (nahiz eta perpau nagusia den) ere ez. Hori dela eta, hitanoa perpau nagusian (galdera eta harridura esaldietan eta aginterazkoak kenduta) soilik erabiltzea erabaki dugu. Hikaren kasua aldiz, desberdina da, perpau nagusian ez ezik mendekoetan ere erabili daitekeelako:

“[...] oso garrantzitsua dela ondo bereiztea hikako formak eta hitanoarenak, batez ere muga morfosintaktikoak aintzat hartuko baditugu. Azken hauek, alokutiboko adizkiek, [...] hemen jarraian zehaztuko ditugun mugak dituzte, ez ordea hikako adizkiek [...]” (Lizartza 2009: 85)

²Maialen Utrillak 0-670 bertso-lerroak euskaratu ditu.

Aldagai soziolinguistikoei dagokienez, Xabier Alberdik (1993) horietako zenbait definitu zituen. Gure erabakietan eragin handiena izan duten aldagai horietako batzuk, garrantziaren arabera hurrenez hurren, honako hauek dira:

- Sexua
 - Aldagai honetan ez dago arau argirik, Euskal Herriko toki bakoitzean modu ezberdinean funtzionatzen baitu: zenbait tokitan, gizona emakumeari hika zuzentzen zaio, eta beste leku batzuetan, aldiz, ez.

Arau honen harira, itzulpenean emakumeak gizonari hika hitz egitea erabaki dugu, baina gizonak emakumeari ez.
- Aginpidea
 - Aldagai honek beti betetzen den arau bat du eta eguneroko edozein egoeratan aplikatzen da: familian, lanean... Hala, seme-alabek gurasoei ezin diete sekula hika egin; gurasoek, aldiz, seme-alabei hika. Langileak nagusiari era neutroan egiten dio, eta nagusiak, aldiz, langileari hika.
- Adina
 - Aldagai honi dagokionez, adinez nagusiagoa denari ez zaio hika hitz egiten, errespetua erakusteko. Aldiz, adinez kidea denari edo adinez txikiagoa denari hika aiseago egiten zaio.
- Testuingurua
 - Testuinguruak ere bere garrantzia du hika erabili edo ez zehazteko. Hala, lagunen artean orokorrean hizketan bagaude, askotan era neutroa eta ez alokutiboa erabiltzeko joera izaten da; aldiz, pertsona askorekin egon arren horietako bati zuzenean hitz eginez gero, hika egin ohi da. Horrez gainera, giroak ere eragina du, izan ere, ohikoagoa da hitanoa jai edo festa giroan erabiltzea, gai serio edo tristeez hitz egitean baino.

Arau horiez gain, beste hainbat aipatzen ditu Lizartzak (2009):

- Nolabaiteko agintea, errespetua edo gizarte-mailako posizioa daukanari sekula ez zaio hika egingo.
- Maila berekoen artean hika egitea zilegi da tradizioz: senideak, ikaskideak, adiskideak, lankideak...
- Nork bere buruari hika egin ohi dio.
- Ezezagunei zuka aritzea da normalena.
- Jendaurrean, komunikabideetan, ohitura da neutroan aritzea.
- Animaliei hika egingo zaie eta beti, arra ala emea izan, gizonezkoari bezala.
- Izaki bizidunei (zuhaitzei, loreei...), bizigabeei (mendiei, izarrei, itsasoei...) eta gorpuzgabeei (arimari, kontzientziari, maitasunari...) ere hika egin behar zaie.

Hitanoaren eta hikaren irizpide horiek oinarri izanda, pertsonaien rola edo izaera, beren arteko harremanak eta elkarrizketak aztertzeari ekin diot. Horretarako, lehenik eta behin pertsonaia bakoitzaren izaera deskribatu dut banan-banan:

- **Pirgopolinizes**

Pirgopolinizes da komedia honetako protagonista. Militarra den arren, ez da militar soila, nahiko kargu altua baitu. Atenasen Filokomasia bahitu eta Efesora eraman zuen. Gizon harroputza da, haren gerra «garaipenengatik» bai eta bere «edertasun gorenak» emakumeen artean sortzen duen efektu miragarriagatik ere. Hala eta guztiz ere, amaieran txotxolo lelo bat besterik ez dela frogatzen da: sozialki bera baino beherago kokatzen diren esklaboek, prostitutek... zeharo engainatzen dute eta tranpan erortzen da.

- **Filokomasia**

Filokomasia da Pirgopolinizesek bahitutako emakumea, aurretik Pleusikles izeneko militarren neskalaguna. Tuntuna izatearen itxura du, ez baititu bere nahiak azaleratzen eta zenbait alditan axolagabekeriaz jokatzeko baitu. Gainera, prostituta izatearen zenbait zantzu ditu. Pirgopolinizesek Filokomasiarengan du boterea eta, beraz, bera baino beherago kokatzen da sozialki. Nolabait Akroteleutiaren eta Milfidiparen mailan kokatu dezakegu, jarrera eta portaera bera baitute.

- **Periplektomeno**

Periplektomeno Pirgopolinizesen bizilaguna da. Agure atsegin eta alaia da, eta lagunei laguntzeko prest dago beti. Bere esklaboen gainean boterea duen arren, bereak ez direnek (Palestrionek, adibidez) manipulatu egiten dute nolabait. Nahiko inuzentea bada ere, ez da ergela, aski ongi baitaki nola jokatu behar duen bizitzan berarentzat probetxua ateratzeko.

- **Pleusikles**

Pleusikles dugu Filokomasiaren jatorrizko mutil-laguna. Pleusikles ere, Pirgopolinizesen antzera, militarra da, baina leloa eta koldarra. Bere neskalagun ohiaren bila doa Efesora eta Periplektomenoren etxean (familiako lagunak dira) hartzen du ostatu. Nahiz eta Filokomasia errekuperatu nahi duen, ez da gai bere kabuz inolako planik pentsatzeko.

- **Palestrion**

Palestrion dugu komedia honetako pertsonaia argiena eta esklabo fidelena. Atenasen Pleusiklesen esklabo izan zen, baina haren ugazabari Filokomasiaren bahiketa kontatzera joan zenean itsasontziz, talde batek bahitu eta Pirgopolinizesi entregatu zioten bere esklabo izateko. Behin Pleusikles Efeson dela, Pirgopolinizes engainatzeko plana sortzen du, bere jatorrizko ugazabaren nahiak betetzeko.

Hala, nahiz eta esklabo izan, sozialki bera baino gorago dagoen militarra engainatzen du.

- **Akroteleutia**

Akroteleutia Efesoko prostituta da, baina ez nolana hikoia. Nahiko argia da eta badu nolabaiteko prestigioa edo maila soziala. Berari esker engainatzen dute Pirgopolinizes.

- **Milfidipa**

Milfidipa Akroteleutiaren neskame esklabo da, eta bitartekari lanak egiteaz arduratzen da. Nahiz eta esklabo izan, argia da Akroteleutiaren antzera; badaki nola jardun gainerakoak engainatzeko.

- **Karion**

Karion esklaboa amaieran soilik agertzen da eta Pirgopolinizes jipoitzeaz arduratzen da.

- **Lurzion**

Esklabo gaztea da, Eszeledroren laguna.

- **Esklabo borreroa**

Azkeneko ekitaldian, V.enean, ageri den pertsonaia dugu.

Behin pertsonaia bakoitzaren izaera ezagututa, taulak osatu ditut, nork nori, non, eta zergatik hitanoa egiten dion edo ez azalduz:

- **Pirgopolinizes**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Pirgopolinizes	Palestrion	IV. ekitaldia, I. agerraldia IV. ekitaldia, II. agerraldia IV. ekitaldia, III. agerraldia IV. ekitaldia,	Bai	Aginpidea: Pirgopolinizes Palestrionen ugazaba da.

		V. agerraldia IV. ekitaldia, VI. agerraldia IV. ekitaldia VIII. agerraldia		
Pirgopolinizes	Milfidipa	IV. ekitaldia, II. agerraldia IV. ekitaldia, VI. agerraldia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hika egiten.
Pirgopolinizes	Pleusikles	IV. ekitaldia, VIII. agerraldia	Ez	Gertutasuna: Ezezagunak dira.
Pirgopolinizes	Filokomasia	IV. ekitaldia, VII. agerraldia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hika egiten.
Pirgopolinizes	Periplektomeno	V. ekitaldia	Ez	Adina eta testuingurua: Periplektomeno adinez nagusiagoa da eta une

				hartan Periplektomenoren eskuetan dago bere bizia.
Pirgopolinizes	Eszeledro	V. ekitaldia	Bai	Aginpidea: Eszeledro Pirgopolinizesen esklaboa da.

- **Filokomasia**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Filokomasia	Palestrion	IV. ekitaldia, VIII. agerraldia	Ez	Testuingurua: «Tristeziatz» beteriko egoera batean daude.
Filokomasia	Pleusikles	IV. ekitaldia, VIII. agerraldia	Ez	Gertutasuna eta testuingurua: Ongi baino hobeto ezagutzen duen arren, egoera horretan ezezagun gisara tratatu behar du. Gainera, elkarrizketako giroa nahiko serioa da.
Filokomasia	Pirgopolinizes	IV. ekitaldia, VIII. agerraldia	Ez	Aginpidea: Pirgopolinizes Filokomasiaren ugazaba

				da, nolabait.
--	--	--	--	---------------

- **Periplektomeno**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Periplektomeno	Palestrion	III. ekitaldia, I. agerraldia IV. ekitaldia III. agerraldia	Bai	Adina eta maila soziala: Periplektomeno Palestrion baino nagusiagoa da eta, gainera, sozialki gorago kokatzen da, Palestrion esklaboa delako.
Periplektomeno	Pleusikles	III. ekitaldia, I agerraldia	Bai	Adina: Ezagunak direnez, eta Periplektomeno nagusiagoa denez, hika egingo dio.
Periplektomeno	Akroteleutia	III. ekitaldia, III. agerraldia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hikaz egiten.
Periplektomeno	Milfidipa	III. ekitaldia, III. agerraldia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hikaz egiten.
Periplektomeno	Pirgopolinizes	V. ekitaldia	Bai	Testuingurua: Pirgopolinizes jadanik tranpan erori da, eta

				Periplektomenok harrotasunez eta mespretxuz hitz egiten dio.
--	--	--	--	--

- **Pleusikles**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Pleusikles	Palestrion	III. ekitaldia, I. agerraldia	Bai	Maila soziala: Pleusikles militarra denez eta Palestrion, aldiz, esklabo, Pleusikles sozialki maila bat gorago dago.
Pleusikles	Palestrion	IV. ekitaldia, VII. agerraldia	Ez	Gertutasuna: Agerraldi honetan Pleusikles marinelez mozorroturik datorrenez, ezezagunak bailiran aritu behar dira.
Pleusikles	Periplektomeno	III. ekitaldia, I. agerraldia	Ez	Adina: Periplektomeno adinez nagusiagoa da.
Pleusikles	Filokomasia	IV. ekitaldia, VII. agerraldia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hika egiten.

Pleusikles	Pirgopolinizes	IV. ekitaldia, VII. agerraldia	Ez	Gertutasuna: Ezezagunak direlako.
------------	----------------	--------------------------------------	----	--

- **Palestrion**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Palestrion	Pleusikles	III. ekitaldia, I. agerraldia IV. ekitaldia, VII. agerraldia	Ez	Aginpidea: Pleusikles Palestrionen benetako ugazabaenez, errespetua zor dio.
Palestrion	Periplektomeno	III. ekitaldia, I agerraldia IV. ekitaldia, III. agerraldia	Ez	Adina eta maila soziala: Nahiz eta Palestrionek esandakoa egiten duen Periplektomenok, Palestrion esklaboak da, maila sozial baxuagokoa. Gainera, Periplektomeno adinez nagusiagoa da.
Palestrion	Lurzion	III. ekitaldia, II. agerraldia	Bai	Maila soziala: Maila berekoak dira, esklaboak.
Palestrion	Akroteleutia	III. ekitaldia, III. agerraldia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hika egiten.

Palestrion	Pirgopolonizes	IV. ekitaldia, I. agerraldia IV. ekitaldia, II. agerraldia IV. ekitaldia, III. agerraldia IV. ekitaldia, V. agerraldia IV. ekitaldia, VI. agerraldia IV. ekitaldia VIII. agerraldia	Ez	Aginpidea: Pirgopolinizes Palestrionen ugazaba da.
Palestrion	Milfidipa	IV. ekitaldia, II. agerraldia IV. ekitaldia IV. agerraldia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hika egiten.
Palestrion	Filokomasia	IV. ekitaldia, VII. agerraldia	Ez	Sexua: Gizonak emakumeari ez dio hika egiten.

- **Akroteleutia**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Akroteleutia	Periplektomeno	III. ekitaldia, III. agerraldia	Ez	Adina eta maila soziala: Periplektomeno nagusiagoa da, baita maila sozial altuagokoa ere.
Akroteleutia	Milfidipa	III. ekitaldia, III. agerraldia IV. ekitaldia IV. agerraldia IV. ekitaldia, VI. agerraldia	Bai	Aginpidea: Milfidipa Akroteleutiaren neskame esklaboa da.
Akroteleutia	Palestrion	III. ekitaldia, III. agerraldia	Ez	Gertutasuna: Ezezagunak dira.
Akroteleutia	Pleusikles	III. ekitaldia, IV. agerraldia	Ez	Gertutasuna: Ezezagunak dira.

- **Milfidipa**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Milfidipa	Palestrion	IV. ekitaldia, II. agerraldia	Ez	Gertutasuna: Ezezagunak dira.
Milfidipa	Pirgopolinizes	IV. ekitaldia, II. agerraldia IV. ekitaldia, VI. agerraldia	Ez	Maila soziala: Milfidipa esklabo hutsa da eta Pirgopolinizes militarra. Gainera, Milfidipa Pirgopolinizes lausengatzen ari da uneoro (nahiz eta gezurretan aritu beste helburu bat lortzeko asmoz).
Milfidipa	Akroteleutia	III. ekitaldia, III. agerraldia IV. ekitaldia IV. agerraldia IV. ekitaldia, VI. agerraldia	Ez	Aginpidea: Milfidipa Akroteleutiaren neskame esklaboa da.

- **Karion**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Karion	Periplektomeno	V. ekitaldia	Ez	Aginpidea Karion Periplektomenoren esklaboa da.
Karion	Pirgopolinizes	V. ekitaldia	Ez	Maila soziala: Pirgopolinizes maila sozial altuagokoa da.

- **Lurzion**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Lurzion	Palestrion	III. ekitaldia, II. agerraldia	Bai	Maila soziala: Maila berekoak dira, esklaboak.
Lurzion	Eszedro	III. ekitaldia, II. agerraldia	Bai	Maila soziala: Maila berekoak dira, esklaboak.

- **Esklabo borreroa**

Nork	Nori	Non	Hitanoa Hika	Zergatia
Borreroa	Periplektomeno	V. ekitaldia	Ez	Maila soziala eta edadea: Periplektomeno nagusiagoa da, baita maila sozial altuagokoa ere.

2.1.4. Hitz-jokoak

Plautoren idazkera ezaugarritzen duen beste elementuetako bat hitz-jokoak dira. Aipatu bezala, Plautok idatzitako obra hau komedia dugu; hori dela eta, hitz-jokoak oso elementu baliagarriak izan dira, istorioari grazia emateko.

Bere estiloaren parte denez, horiek mantentzen saiatu naiz, euskararen baliabideek utzi ahal izan didaten neurrian. Horietako batzuk azalduko ditugu:

2.1.4.1. *Liberos / Liberum*

Plauto *liberos* (*liberi, liberōrum* = ‘seme-alabak’) eta *liberum* (*liber, libera, liberum* = ‘libre’) hitzez baliatu zela hitz-jokoa sortzeko:

Pleusicles.— Cur non uis? Nam procreare liberos lepidumst opus.

Periplectomenus.— Hercle uero liberum esse tete, id multo lepidiust. (*Miles gloriosus* 682-683)

Gaztelaniazko itzulpenetan itzultzaileek honela jokatu dute:

Pleusicles.— ¿Por qué no quieres? Si hacer hijos libres* es una agradable ocupación.

Periplectomeno.— ¡Hércules! Pero mucho más agradable hacer la libre voluntad.

*Oin-oharra: En el texto dice tan sólo ‘libres’ que es como se llamaba a los hijos de una esposa libre (por contraste con los de *servi*). (Ciruelo 1975:159)

Pleusicles.— ¿Y por qué no? Procrear hijos es una tarea hermosa.

Periplectomeno.— Pero ser un hombre libre es, por Hércules, mucho más hermoso. (Bravo 1995: 112)

Pleusicles.— ¿Por qué?: los hijos dan muchas alegrías.

Periplectomeno.— Te juro que mucha más alegría da el gozar tú de tu libertad. (González-Haba 1996: 20)

Pleusicles.— ¿Por qué no? Tener hijos es una tarea hermosa.

Periplectomeno.— Por Hércules, ¡ser libre*! Eso es mucho más hermoso.

*Oin-oharra: No podemos reproducir el juego paronomástico entre *liberos* (hijos) y *liberum* (libre). (Mañas 2003: 103)

Ikusi bezala, gaztelaniazko itzulpenetan aukera ezberdinak daude: batzuek, jokia mantentze aldera jo dute *libre* hitzaren bidez; beste batzuek, aldiz, hitz-jokia guztiz edo partzialki (oin-ohar bidez azalduta) ezabatu dute.

Ingeleseko eta frantseseko bertsioetan honako erabaki hauek hartu dituzte:

Pleusicles.— Why don't you choose? For 'tis a delightful thing to be the father of children. [liberos].

Periplectomenus.— Troth, 'tis very much sweeter by far to be free* [liberum] yourself.

*Oin-oharra: There is a play on the word "liber," here, which means either "a child," or "a free person." He says that it is much more pleasant to be "liberum" (a free person), than to be the father of a "liberum" (a child). The word "liber," meaning "a child," is very rarely used in the singular number. The remark of Pleusicles is rather modified in the translation. (Riley 1912: 39)

Pleusicles.— Why not, sir? Getting children is a delightful duty, you know.

Periplectomenus.— I'll take the oath that getting the joys of freedom is much more delightful. (Nixon 1916: 195)

Pleusiclès.— Pourquoi ne veux-tu pas? C'est une besogne agréable que de faire des enfants.

Periplectomène.— Par Hercule! être libre de sa personne est bien plus agréable encore. (Ernout 1932: 23)

Pleusicles.— Why don't you? Begetting children is a joyful business.

Periplectomenus.— No, being free is mucho more joyful. (de Melo 2011: 213)

Euskarara itzultzean, bi kontzeptu erabili behar ditugu latinezko *liberos* hitzaren esanahia guztiz islatzeko: *seme-alaba* eta *libre*. Hori dela eta, euskaraz ezinezkoa da jatorrizko hitz-joko berdina erabiltzea. Halere, libre hitzarekin jatorrizko hitz-jokoa ordezkaturiko duen beste joko bat sortu dut:

Palestrion.— Zergatik, bada? Seme-alaba libreak sortzea eginkizun atsegina da-eta.

Periplektomeno.— Norbera libre izatea are atsegina goa, ala Herkules.

2.1.4.2. *Bacchabatur / Vacabatur*

Kasu honetan, Plautok nolabaiteko jokia sortu nahi izan zuen *bacchabatur* eta *vacabatur* hitzen artean:

Lurcio.— Non hercle tam istoc ualide cassabant cadī.
Sed in cella erat † paulum nimis loculi librici †.
Ibi erat bilibris aula sic propter cados;
ea saepe diciens complebatur <in> die:
ubi bacchabatur aula cassabant cadī. (*Miles gloriosus* 851-856)

Ciruelok (1998) oin-oharretan adierazi zuen aktoreak *bacchabatur* ('Bakoren ohoretako jaia egin') hitza guztiz argi ez ahoskatzekotan, haren ordeztan *vacabatur* ('pitxer hutsa') uler daitekeela. Beraz, ia homofonoak diren bi hitzen arteko jokia dugu. Gaztelaniazko bertsioetan honela jokatu dute:

Lurcion.— ¡No, por Hércules!, no era sólo por eso por lo que los jarros se torcían. Sino que en la bodega había rincones más resbaladizos de la cuenta.

Allí había, así junto a los jarros, una olla de dos bocas; con frecuencia se llenaba ésta diez veces al día: cuando la olla se sacrificaba a Baco* se volcaban los jarros.

*Oin-oharra: Posible juego de palabras, si el actor pronunciaba con cierta ambigüedad *bacchabatur* de modo que pudiese confundirse al oírlo con *vacabatur*, en cuyo caso en vez de entenderse 'la olla se sacrificaba a Baco' se podía entender 'la olla estaba vacía'. (Ciruelo 1975: 179)

Lurción.— No, por Hércules, no era ésa la razón principal por la que las ánforas volcaban con tanta facilidad. Es que en la bodega había un rinconcito muy resbaladizo y allí un jarra de litro, situada muy cerca de las ánforas. Con frecuencia esta jarra se llenaba diez veces al día. Yo mismo la vi más de una vez llenarse y vaciarse en un

instante. Y, cuando la jarra celebraba su bacanal, entonces se volcaban las ánforas. (Bravo 1995: 120)

Lurción.— No, no, no era por eso por lo que tambaleaban tanto las ánforas, sino que había en la bodega una esquinilla así un poco resbaladiza y allí mismo había juntos a las ánforas una jarra de a litro, que solía llenarse hasta diez veces al día; yo mismo la he visto llenarse y vaciarse; cuando a la jarra le entraba la locura de Baco, otra vez empezaban a tambalearse las ánforas. (González-Haba 1996: 24)

Lurción.— No era por eso, por Hércules, por lo que las ánforas se caían tan frecuentemente, sino porque había en la bodega un pequeño lugar demasiado resbaladizo y en ese sitio, junto a las ánforas, había una olla de dos libras que a menudo se llenaba diez veces al día. Yo la vi llenarse y vaciarse en un momento. Entonces, cuando la olla danzaba borracha, las ánforas se caían. (Mañas 2003: 112)

Gaztelaniazko itzulpenetan, oro har, hitz-jokoa ezabatu egin dute eta ez diote inolako erreferentziarik egin, Ciruelok izan ezik.

Ingeleserako eta frantseserako itzultzaileek honela jokatu dute:

Lucio.—No, faith, the casks would not* have stood so very badly there. But there happened to be in the cellar a bit of a slippery spot; a two-pint pot was placed there, near the casks, in this fashion shows the way. Frequently, that was filled ten times in a day. When the pot acted the reveller, the casks were all tottering.

*Oin-oharra: The whole of this passage is of somewhat obscure signification. The two lines probably mean, "The casks (cadi) would not have fallen down there so very much, had it not been that one part of the cellar was very slippery indeed." He then shows how (sic) the pot was put close by the casks, so that, they slipping down, it was filled as often as ten times in one day; and he concludes by saying, that when the pot acted the Bacchanal (debacchabatur), the casks slipped down again. Probably by acting the Bacchanal he means to say that the pot got filled and was then emptied, just like the Bacchanals, who, doubtless, were not particular at vomiting a part of the enormous

quantities of wine which they imbibed; and he naively tells the truth, by saying that the cask slipping was the result of the pot being emptied, and so laying the fault more upon the pot than the drinker. (Riley 1912: 50)

Lucrio.—Lord, no ! That wasn't why the... casks cut such... capers. But there was a... little spot in the... storeroom that was awfully... slippery, and there, standing... so {ilhislraling) near the... casks, was a... two-quart jar, and this jar often... filled itself up... ten times over. I've seen it get... full and empty... especiall... full. And when the jar got to... carousing, the... casks got to cutting... capers. (Nixon 1916: 213)

Lurcion.— Non, parbleu; ce n'est pas tant pour cela qu'ils culbutaient si fort. Mais il y avait dans la cave une petite place, fort glissante, et là, un broc de deux pintes, tout juste à côté des tonneaux. Il arrivait souvent au broc de s'emplier dix fois dans une journée; je l'ai vu se remplir et se vider aussi vite*. Quand le broc faisait son bacchanal, c'est: alors que les tonneaux faisaient la culbute!...

*Oin-oharra: Vers suspect dont le texte est peu sûr. (Ernout 1932: 29)

Lucrio.— No, that's not why the jars tottered so much; rather, in the cellar there was a small and very slippery spot. A two-pound pot stood there next to the jars like this. It was often filled ten times: I saw it getting full and empty. When the pot was celebrating the rites of Bacchus*, the jars used to totter.

*Oin-oharra: The god of wine and inebriation. (de Melo 2011: 231)

Nixon eta Ernout egitura errepikapenaz baliatu dira antzeko joko bat sortu nahian. Rileyk eta de Melok, aldiz, esanahiari gehiago jarraitu diote eta jokoak desagertu egin da.

Euskarara itzultzeko orduan, hitz-jokoa islatuko zuen beste hitz-joko bat bilatu beharra zegoen. Hala, jatorrizkoaren esanahia eta jokoaren funtsa biltzen zuen joko bat erabiltzea erabaki dut, *uzten* eta *husten* aditzen ia erabateko homofonikotasunean oinarritutakoa:

Lurzion.— Ez, ala Herkules, ez duk hori arrazoia. Kontua da bodegako izkina bat nahiko labainkorra dela eta, bertan, anforen parean bi librako pitxerra zegoela, zeina batzuetan egunean zehar hamar aldiz betetzen zuan. Nik neuk ikusi diat nola betetzen eta husten zen. Pitxerra Bakoren ohoretan uzten zenean, anfora guztiak behera begira husten zituan.

2.1.4.3. *Concilium / Consilium*

Adibide honetan, Plautok *concilium* (*concilium, concilii* = ‘bat-egite; bilera, hitzordu; batzar’.) eta *consilium* (*consilium, consilii* = ‘kontseilu; saio; deliberamendu; ebazpen; gogoeta, arrazoi, zuhurtzia; plan, xede, asmo’) hitzekin osatu zuen jokia.

Palaestrio.— Socium tuorum conciliorum et participem consiliorum. (*Miles gloriosus* 1013)

Gaztelaniazko itzulpenek honakoa proposatzen dute:

Palestrión.— Al aliado de tus determinaciones y al cómplice de tus pensamientos. (Ciruelo 1975: 201)

Palestrión.— Al compañero de tus conciliábulos y al confidente de tus planes. (Bravo 1995: 128)

Palestrión.— Quien es compañero de tus conciliábulos y partícipe de tus designios. (González-Haba 1996: 28)

Palestrión.— Al cómplice de tus reuniones y partícipe de tus decisiones. (Mañas 2003: 124)

Gaztelaniazko bertsio guztietan ezabaturik dago jatorrizko hitz-jokoa, eta ez dago inolako oin-oharrik.

Ingelesezko eta frantsesezko bertsiotan, bestalde, aukera hauek daude:

Palaestrio.— The sharer of your plans and the partaker of your secrets. (Riley 1912: 60)

Palaestrio.— (*mysteriously, from his hiding place*) A colleague in your councils, and a sharer of your counsels. (Nixon 1916: 231)

Palestrion. — Le compagnon de tes conciliabules, et le confident de tes desseins. (Ernout 1932: 29)

Palaestrio.— A comrade in your councils and a sharer in your counsels. (de Melo 2011: 249)

Ikus dezakegunez, Nixon eta De Melo hitz-jokoa erreproduzitzen saiatu dira *councils* eta *counsels* hitzen antzekotasunean oinarrituta.

Euskaraz, bi hitz horiek itzultzeko apur bat hedatu beharko litzateke bien esanahia, eta, bide horretatik, ezin aproposagoak dira, gure ustez, *asmo* eta *egitasm*o hitzak. Jatorrizkoaren funtsezko esanahiari jarraitu ez ezik, jokoa gordetzea lortzen da:

Palestrion.— Zure asmoetako kidea eta zure egitasmoetako partaidea.

2.1.4.4. *Montis / Massas*

Adibide hau desberdina da, izan ere, jatorrizkoan ez dago paranomasia erako joko garbirik *montis* eta *massas* hitzen artean. Hala ere, esaldiaren egituragatik nolabaiteko jolasa dagoela antzematen da.

Palestrio.—

Praeter thensauros.

Tum argenti montis, non massas habet. Aetna mons non aeque altus<v>. (*Miles gloriosus* 1064-1065)

Gaztelaniazko itzulpenetan honela jokatu dute:

Palestrión.— Aparte de las joyas. Además tiene montañas, no montones, de plata. El monte Etna no es tan alto. (Ciruelo 1975: 209)

Palestrión.— Y eso sin contar sus otros tesoros. Porque de plata tiene no montones sino montañas. El Etna no es tan alto ni con mucho. (Bravo 1995: 132)

Palestrión.— Aparte de tus otros tesoros, y luego, no lingotes, montañas de plata, más altas que el mismo Etna. (González-Haba 1996: 29)

Palestrión.— Sin contar con sus tesoros, tiene montañas, no montones, de plata más altas que el Etna. (Mañas 2003: 128)

Gaztelaniazko itzulpenetan, jokoa erreproduzitzeko jatorrizkoan dagoen sintaxi-egitura kopia dute (*tiene... no...; no... sino...*), eta batzuek *montañas - montones* hitzen arteko antzekotasunarekin jokatu dute.

Ingeleserako eta frantseserako itzultzaileek honela jokatu dute:

Palaestrio.—Besides your treasures. Then, of silver, he has mountains, not ingots; Aetna is not so high. (Riley 1912: 64)

Palaestrio.— Besides his stores of treasure. And then his silver —no mere masses, but mountains of it ! Higher than Mount Aetna ! (Nixon 1916: 239)

Palestrion. — Sans compter les autres trésors; et quant à l'argent, il en a, non par monceaux, mais par montagnes... l'Etna n'atteint pas une pareille hauteur*.

*Oin-oharra: Le vers présente certaines difficultés de scansion et le texte en est mal assuré dans le détail. Mais le sens ne paraît pas douteux. (Ernout 1932: 37)

Palaestrio.— Besides his treasures. And then he has mountains of silver, not mere lumps; Etna is not so high. (de Melo 2011: 257)

Bertsio guztiek jarraitu dute gaztelaniazko itzultzaileen teknika, de Meloren itzulpenak izan ezik, zeinak sintaxi-egitura aldatu duen. Gainera, Ernouten frantsesean, *monceaux - montagnes* hitzen hasiera berdina baliatu du.

Nire itzulpenean, jatorrizkoaren sintaxi-egitura kopiatzeaz gain, euskaraz hitz-jokoa are hobeto ikusarazten duen baliabidea erabili dut, hitz-elkarketa, lehenengo elementua errepikatuta:

Palestrion.— Haren bitxiak albo batera utzita noski, zeren zilarrezko mendiak baitauzka; zilar-pilak ez, zilar-mendiak, Etna mendia baino altuagoak!

2.1.5. Interjekzioak

Bat-bateko emozioak adierazteko, Plautok sarritan erabili zituen interjekzioak, eta, askotan, garai hartako jainko edo pertsonaia mitologikoei erreferentzia egiten diete. Hauek dira sarrien agertzen direnak: *Hercle*, *Ecastor*, *Pol*, *Edepol*.

Itzultzeko orduan, Maialen Utrillak eta biok adostu dugu gure jokabidea. Hala, konturatu gara hiru joera egon direla: aipamenak guztiz ezabatzea, aldatzea edo gordetzea.

Gaztelaniazko itzulpenetan, aipamenak gordetzea erabaki dutenen artean, honako forma hauek erabili dituzte:

Latina	Gaztelania
Hercle	Por Hércules (Ciruelo 1975: 193)
Ecastor	Por Cástor (Ciruelo 1975: 210)
Pol, Edepol	Por Pólux (Ciruelo 1975: 201)

Itzultzaile guztien artean González-Habaren jokabidea da desberdinena, izan ere, bi erataria jokatu baitu: aipamenak guztiz ezabatu ditu edo erabat aldatu. Honako bi adibideetan argi ikusten da interjekzioen ordainak erabat aldatzearen jokamoldea:

Pyrgopolinices.—

Hercle pulcram praedicas.

Sed quis east? (*Miles gloriosus* 968-969)

Pirgopolinices.— Caray que no debe ser guapa la joven, por lo que dices. Pero ¿quién es? (González-Haba 1996: 26)

Milphidippa.— Pol istuc quidem multae. (*Miles gloriosus* 1017)

Milfidipa.— Ay, eso es una cosa muy corriente. (González-Haba 1996: 28)

Aipatutako hiru aukerak zilegi diren arren, gure itzulpenean elementuok gordetzea erabaki dugu, jatorrizkoa ezaugarritzen dutelako eta garai hartako hizkera islatzen dutelako.

Euskaraz, tradizioan eta gaur egun oso ohikoa den formula bat dugu: *alajainkoa* eta horrekin erlazionaturiko *alajaina*. Euskaltzaindiaren hiztegiak forma horiek ditu araututa:

alajainkoa interj. Zina, arnegua, desira edo harridura adierazteko erabiltzen den hitza. Ik. **alafede**; **alajaina**. *Horrenbeste bagaituk, horrenbeste bai, alajainkoa! Alajainkoa!, hori al da gizonari emateko erantzuna?*

Bere erabilera egiaztatzeko, Egungo Testuen Corpora (ETC) baliatu dut. Nahiko erabilera ditu, batez ere literatura arloan (282 erabilera guztira)

Corpus horretaz gain, Orotariko Euskal Hiztegia ere kontsultatu dut tradizioa ezagutzeko. *Alajainkoaren* sarreraren barnean, ikusten dugu Zaitegik Sofokles eta Platon honela itzultzean *Ala Artemi* eta *Ala Tzeu* erabili zituela:

alajainkoa (G; Dv (s.v. *alatu*)), **alajinkoa** (S; H), **alajinko** (S). Ref.: A (*ala*); A Morf 732; Lh (*ala*); Lrq (*bibost*). ■ *Etim.* En M.A. García *Cuentas municipales de Gata* (1520-1524) Salamanca 1972, se cita, al tratar de la blasfemia, como una de las más usuales, la frase 'como Dios es verdad'. En nuestro caso es 'así Dios (existe, etc.)'.

Vive Dios, como hay Dios (usado como exclamación, o como refuerzo de lo dicho). Cf. AA II 34s: "*Begira izan ote dezun, juramentu diran itzak esateko oitura, egiaren edo gezurraren gañean itzegiten dezun begiratu bage, egin dezagun kontu: Ala Jainkoak salba nazala, emendik mugi ez nadilla*"; Lard 201: "*Bestela, ala Jainkoak salba nazala, etzatzu bat bakarrik ere gaur arratsean geratuko*". Cf. tbn. Zait Sof 27: "*Ala Artemi andragoia! Ez du itzuriko nonbait zigorra zure ausardi onek*", o Zait Plat 131: "*Bai, ala*

Tzeu --esan zuen Polemark-ek-- argi-argi dago ori, Sokrate". v. ALA JAUNGOIKOA (s.v. jaungoiko), alaintso, alainxe, alajaina, alajin, alajipo, alaua, alaxintxo, alazankoa.

Adibide horiek oinarri hartuta, ildo beretik jotzea erabaki dugu. Beraz, honako forma hauek erabili ditugu:

Latina	Gaztelania	Euskara
Hercle	Por Hércules	Ala Herkules*
Ecastor	Por Cástor	Ala Kastor*
Pol	Por Pólux	Ala Polux*

*Izenen euskarazko forma 3.1.2. atalean azalduta.

2.2. Kultura-elementuak

Kultura-elementuak literatura testu orotan agertzen dira, eta idatzi den garaiari buruzko elementuak, hots, kultura, pentsaerak, ohiturak... barnebiltzen ditu. Plautoren *Miles Gloriosus* lana ez da salbuespena. Antzezlan osoan zehar garai hartako zibilizazioei, ohiturei... erreferentzia egiten dieten elementu ugari ageri dira.

Kultura-elementuak itzultzeko orduan, hiru joera edo teknika nagusi daude: lehenengoa, etxekotzea edo domestikazioa, hau da, jatorrizko elementu kulturala itzultzailearen kulturako beste elementu batekin ordezkatzeta; bigarrena, exotizazioa, hots, jatorrizko elementu kulturala itzulpenean mantentzea; hirugarrena, neutralizazioa, jatorrizko elementua kultura kutsudun gabeko beste elementu batekin ordezkatzeta. Halere esan beharra dago historian zehar joerak aldatu egin direla. Antzina etxekotzearen aldeko joera gailentzen zen zalantzarik gabe; gaur egun, ordea, exotizazioa nabarmen gailentzen da (Revuelta 2017: 3). Argi eta garbi ikusiko dugu 1912ko itzulpenetik 2011ko itzulpenera bitartean egindako aukeraketak aztertzean.

Nire itzulpenean exotizazio teknika erabili dut, kultura-elementua ezabatzea jatorrizko testuaren identitatearen parte bat galtzea dela deritzodalako eta mota honetako testu batean hala jokatzeta guztiz desegokitzat jotzen dudalako. Halere, Cillerok (1996) esan bezala, zilegi da kultura-elementuoi oin-oharra gehitzea. Hala, irakurleak ulermen-

arazoren bat izatekotan edo informazio gehigarria nahi izatekotan, bertan du informazioa.

Plautok erabilitako elementuak identifikatzeko eta bakoitzari eman diodan itzulpena aztertzeke, azpitaldeak osatu ditut.

2.2.1. Antzinako unitateak

- ***Libra, librae***

Lurcio.— Non hercle tam istoc ualide cassabant cadī.
Sed in cella erat † paulum nimis loculi librici †.
Ibi erat bilibris aula sic propter cados;
ea saepe diciens complebatur <in> die:
ubi bacchabatur aula cassabant cadī. (*Miles gloriosus* 852-856)

Gaztelaniara itzultzerako orduan, aukera ezberdinak ikus ditzazkegu:

Lurcion.— ¡No, por Hércules!, no era sólo por eso por lo que los jarros se torcían. Sino que en la bodega había rincones más resbaladizos de la cuenta.

Allí había, así junto a los jarros, una olla de dos bocas; con frecuencia se llenaba ésta diez veces al día: cuando la olla se sacrificaba a Baco* se volcaban los jarros.

*Oin-oharra: Posible juego de palabras, si el actor pronunciaba con cierta ambigüedad *bacchabatur* de modo que pudiese confundirse al oírlo con *vacabatur*, en cuyo caso en vez de entenderse ‘la olla se sacrificaba a Baco’ se podía entender ‘la olla estaba vacía’.
(Ciruelo 1975: 179)

Lurción.— No, por Hércules, no era ésa la razón principal por la que las ánforas volcaban con tanta facilidad. Es que en la bodega había un rinconcito muy resbaladizo y allí un jarra de litro, situada muy cerca de las ánforas. Con frecuencia esta jarra se llenaba diez veces al día. Yo mismo la vi más de una vez llenarse y vaciarse en un

instante. Y, cuando la jarra celebraba su bacanal, entonces se volcaban las ánforas. (Bravo 1995: 120)

Lurcion.— Non, parbleu; ce n'est pas tant pour cela qu'ils culbutaient si fort. Mais il y avait dans la cave une petite place, fort glissante, et là, un broc de deux pintes, tout juste à côté des tonneaux. Il arrivait souvent au broc de s'emplir dix fois dans une journée; je l'ai vu se remplir et se vider aussi vite*. Quand le broc faisait son bacchanal, c'est: alors que les tonneaux faisaient la culbute!...

*Oin-oharra: Vers suspect dont le texte est peu sûr. (Ernout 1932: 29)

Lurcion.— ¡No, por Hércules!, no era sólo por eso por lo que los jarros se torcían. Sino que en la bodega había rincones más resbaladizos de la cuenta.

Allí había, así junto a los jarros, una olla de dos bocas; con frecuencia se llenaba ésta diez veces al día: cuando la olla se sacrificaba a Baco* se volcaban los jarros.

*Oin-oharra: Posible juego de palabras, si el actor pronunciaba con cierta ambigüedad *bacchabatur* de modo que pudiese confundirse al oírlo con *vacabatur*, en cuyo caso en vez de entenderse 'la olla se sacrificaba a Baco' se podía entender 'la olla estaba vacía'. (Ciruelo 1975: 179)

Lurción.— No, por Hércules, no era ésa la razón principal por la que las ánforas volcaban con tanta facilidad. Es que en la bodega había un rinconcito muy resbaladizo y allí un jarra de litro, situada muy cerca de las ánforas. Con frecuencia esta jarra se llenaba diez veces al día. Yo mismo la vi más de una vez llenarse y vaciarse en un

instante. Y, cuando la jarra celebraba su bacanal, entonces se volcaban las ánforas. (Bravo 1995: 120)

Lurción.— No, no, no era por eso por lo que tambaleaban tanto las ánforas, sino que había en la bodega una esquinilla así un poco resbaladiza y allí mismo había juntos a las ánforas una jarra de a litro, que solía llenarse hasta diez veces al día; yo mismo la he visto llenarse y vaciarse; cuando a la jarra le entraba la locura de Baco, otra vez empezaban a tambalearse las ánforas. (González-Haba 1996: 24)

Lurción.— No era por eso, por Hércules, por lo que las ánforas se caían tan frecuentemente, sino porque había en la bodega un pequeño lugar demasiado resbaladizo y en ese sitio, junto a las ánforas, había una olla de dos libras que a menudo se llenaba diez veces al día. Yo la vi llenarse y vaciarse en un momento. Entonces, cuando la olla danzaba borracha, las ánforas se caían. (Mañas 2003: 112)

Lucio.— No, that's not why the jars tottered so much; rather, in the cellar there was a small and very slippery spot. A two-pound pot stood there next to the jars like this. It was often filled ten times: I saw it getting full and empty. When the pot was celebrating the rites of Bacchus*, the jars used to totter.

*Oin-oharra: The god of wine and inebriation. (de Melo 2011: 231)

Itzultzaileen artean bi jokamolde egon dira: gehienek (6/8) esaldi bat gehiago dute («Yo mismo la vi más de una vez llenarse y vaciarse en un instante»ren antzekoak); gainerakoek (2/8), aldiz, ez dute esaldi hori jarri.

Zalantzak daudela ikusita, nik esaldi hori aipatzearen alde egin dut, latinezko bi bertsioetan agertzeaz gain, aipatutako itzultzaile gehienek erabili dutelako.

Lurzion.— Ez, ala Herkules, ez duk hori arrazoia. Kontua da bodegako izkina bat nahiko labainkorra dela eta, bertan, anforen parean bi librako* pitxerra zegoela, zeina batzuetan egunean zehar hamar aldiz betetzen zuan. Nik neuk ikusi diat nola betetzen

eta husten zen. Pitzerra Bakoren ohoretan uzten zenean**, anfora guztiak behera begira husten zituan.

*Oin-oharra: *Libra* Antzinako Erroman masa-unitatea zen. Pisutan, 328.9 gramoren balioa zuen, eta bolumenean litro erdi inguru. Euskal Herriko tradizioan pisu-unitate gisa bakarrik erabili da (hamazazpi ontza, hots, kilo erdia baino zerbait gutxiago), baina halere Erromako unitatearen izena erabili dugu hemen pitzerraren edukiera adierazteko: bi librako pitzerra litro batekoa izango litzateke, gutxi gora behera.

**Oin-oharra: Bako mahatsaren, ardoaren eta zoramenaren jainkoa zen Antzinako Erroman, Jupiter eta Semeleren semea. Hemen *bacchabatur* ‘Bakoren opari gisa uzten zenean’ eta *vacabatur* ‘husten zenean’ soinu-jokoa dago.

2.4.2. Bertso-lerroa falta

Zalantzazko bertso-lerroez gain, zenbaitetan bertso-lerro osoak galdu dira. Hona hemen bat:

* Palaestrio. *.— Ei dabo, <aps> tua mi uxore dicam delatum et datum, ut sese ad eum conciliarem; ille eiusmodi est: cupiet miser, qui nisi adulterio studiosus rei nulli aliaest improbus. (The latin library 1912: 17-18)

Periplectomenus.—Audio; ne me surdum esse arbitrare, si audes. ego rectemeisauribus utor. *

Palaestrio.— Ei dabo, aps tua mi uxore dicam delatum et datum, ut sese ad eum conciliarem; ille eiusmodi est: cupiet miser, qui nisi adulterio studiosus rei nulli aliaest improbus.

*Oin-oharra: Leo notes hopeless lacuna here. (Nixon 1916: 206)

Palaestrio.— * * * *

Ei dabo; <a> tua mihi ucore dicam delatum et datum,
Vt sese ad eum coliliarem. Ille — eius modi est— cupiet
miser;

Qui nisi adulterio stodiosus rei nulli aliaest inprobis. (Ciruelo 1975: 800-802)

Periplectomenus.—Audio. ne me surdum uerberauit! si audes, ego recte meas auras ut
<or> *** (de Melo 2011: 224)

Kasu honetan, jatorrizko testuaren bertso-lerroren bat galdu da, eta hiru bertsioetan* ikurraz ageri da adierazita. Halere, badirudi ez dagoela argi zein bertso-lerro galdu zen zehazki lehenengo adibidean eta hirugarrengoan Palestrion hitz egin eta berehala baitago ikurra; bigarrengoan, aldiz, Periplektomenok hitz egiten bukatzean kokatu du ikurra.

Itzulpenerako erabaki bat hartu baino lehen, gainerako hizkuntzetako bertsioei erreparatu diet:

Palaestrio.—I myself will go straightway to him; I'll say that it has been brought and delivered to me from your wife, in order that I might introduce her to him. He'll be distractedly longing for her at home, a scoundrel that cares for nothing else whatever but intriguing. (Riley 1912: 43-44)

Palaestrio.—(*less consequential*) I shall give it to him, sir, saying it was sent by your wife and given to me so that I might bring her and him together. This is the sort he is—he'll be crazy for her, poor fool, for adultery is the rascal's leading interest. (Nixon 1916: 207)

... (*Lacune dans le texte*) ...

Palestrion. — Je le lui remettrai; je dirai qu'on me l'a remis et donné de la part de ta femme, pour tâcher d'obtenir à celle-ci un rendez-vous avec lui. Je connais l'homme; il en mourra d'envie; rien au monde ne lui plaît comme l'adultère, à ce vaurien. (Ernout 1932: 32)

Periplectomeno.— Cuando las tengas instruidas, iré al militar y le daré el anillo: le diré que me lo ha traído y me lo ha dado tu mujer para que la pusiera en tratos con él... Tal

como yo me lo conozco, ¡le entrarán unas ganas al pobre! Porque no hay nada que le atraiga tanto al muy bribón como las mujeres casadas.

Palestrión.—*... .. se lo daré; diré que me lo ha dado y confiado su mujer para ganarse la amistad de él. El desgraciado — así es él — la deseará; porque el sinvergüenza nada desea tanto como el adulterio.

*Oin-oharra: Falta el verso en los manuscritos. (Ciruelo 1975:173)

Palestrión.— ... Se lo daré y le diré que me ha sido dado y entregado de parte de tu esposa, para que yo le consiga una cita con él. Él, dado su carácter, no deseará otra cosa con más ganas, porque el muy bribón no piensa más que en el adulterio.(Bravo 1995: 117)

Periplectomeno.— Te oigo, te oigo, no me dejes sordo a fuerza de gritos*, por favor, yo tengo buenoído ***.

Palestrion.— Cuando las tengas instruidas, iré al militar y le daré el anillo: le diré que me lo hatraído y me lo ha dado tu mujer para que la pusiera en tratos con él... Tal como yo me lo conozco, ¡le entrarán unas ganas al pobre! Porque no hay nada que le atraiga tanto al muy bribón como las mujeres casadas.

*Oin-oharra: Texto según conjetura de Lindsay en el aparato crítico. (González-Haba 1996: 22)

Periplectomeno.— Te estoy oyendo; no hace falta que me rompas los tímpanos como si estuviera sordo. Haz el favor, que aún tengo buen oído, *****.

<Palestrión>.—Le daré el anillo al soldado y le diré que me lo han entregado y confiado de parte de tu esposa, para que yo le consiga una cita con él. Siendo como es, se morirá de ganas, pues el malvado no piensa más que en el adulterio.

*Oin-oharra: Hay una laguna de un verso. (Mañas 2003: 109)

Periplectomenus.— I can hear you. Goodness, he's given me an ear-bashing! If you please, I use my ears all right ***. (de Melo 2011: 225)

Orokorrean, bi joera daude: testuan bertso-lerroren bat falta dela adieraztea edo ezer aipatu gabe itzulpena ematea.

Halakoak itzultzean beharrezkoa iruditu zait oin-ohar bidez bertso-lerro bat falta dela adieraztea:

Palestrion.— Argibideak ematen dizkiezunean, militarrengana joango naiz* eta eraztuna emango diot. Zure emazteak eman didala esango diot, bien arteko hitzordua lotzen laguntzeko. Oso ongi ezagutzen dut... irrikatan jarriko da! Kokin horrek emakume ezkonduak ditu atsegin, guztiaren gainetik.

*Oin-oharra: Jatorrizko testuaren bertso-lerro bat galdu egin zenez, ez dago argi zer zioen.

3. ITZULPENA: *MILITAR HARROPUTZA*

PLEUSIKLES.— Zuen zerbitzuengatik esker onekoa izatea, arazo larregi sortu baitizuet 670 jadanik. Eta benetan larritzen nau, Periplektomeno, zuri hainbeste gastu sortu izanak.

PERIPLEKTOMENO.— Hori bai tontakeria galanta! Emakume gaizto batekin edo etsai batekin dirua gastatzea dirua botatzea da, baina gonbidatu on batekin edo lagun batekin gastatutakoa, aldiz, irabazia besterik ez da. Jainkoenganako gurtzan erabilitakoa ere, zentzuzko pertsona batentzat, irabazia besterik ez da. Jainkoei eskerrak, nik nahikoa dut zuri behar bezalako harrera oparoa eta beroa egiteko; nahi adina jan eta edan ezazu, nire konpainiaz gozatu eta zure nahiak asebeta. Nire etxea askea da, eta nik ere aske gozatu nahi dut nire biziaz zeren, jainkoei esker, nire aberastasun amaigabearekin, edozein emakume aitoren alaba aberatsekin ezkondu nintekeen, baina erabaki dut ez dudala nire 680 ondoan uneoro zaunka izango dudana emakumerik nahi.

PALESTRION.— Zergatik, bada? Seme-alaba libreak sortzea eginkizun atsegina da-eta.

PERIPLEKTOMENO.— Norbera libre izatea are atseginagoa, ala Herkules!

PALESTRION.— Erabaki zuhurrak hartzen dituzu, bai zeuretzat eta bai gainerakoentzat!

PERIPLEKTOMENO.— Zalantzarik gabe, oso ederra da emakume on batekin ezkontzea, halakorik nonbait balitz. Baina, zergatik ezkonduko naiz sekula santan entzun gura dudana esango ez didan emakume batekin? «Senartxo maitea, eros iezadazu artilea, zuretzat palio suabe eta bero bat egiteko, eta negurako tunika³ on bat, hotza heltzen denerako». Benetan uste al duzu zure emazteak hori esango dizula? Inolaz ere ez! Egunsentia heltzen denerako, beste hau esango dizu: «Senartxo maitea, emadazu 690 diru apur bat amari zerbait oparitzeko kalendetan⁴, emadazu gozokiak egiteko, emadazu Minervaren jaietan⁵ zerbait eman ahal izateko, belagileari, ametsen interpretatzaileari, aztiari eta igarleari. Guztiz lotsagarria da bekainak irakurtzen dituen igarleari ezer ere ez ematea; eta zer esanik ez, arropa tolesten didan emakumeari ordainik ez ematea; argizariarekin lanean ari dena aspalditik dago nirekin haserre, ezer jasotzen ez duelako; amaitzeko, emagina kexatu zait oso gutxi eman diodalakoan: ez al diozu esklaboen inudeari ezer bidaliko?». Aipatutako kalte eta gastu horiek guztiek, eta antzeko beste batzuek, gogoia kentzen didate halako kontuekin etorriko zaidan emaztea hartzeko. 700

PALESTRION.— Jainkoek babesten zaituzte. Askatasun hori galduko bazenu, ia ezinezkoa izango zenuke, ala Herkules, berriro berreskuratzea.

PLEUSIKLES.— Halere, aitoren semea eta zinez aberatsa denarentzat, seme-alabak

³ Tunika (*tunica*) erromatarren jantzi tipikoa zen, jositako bi atalek osatua eta gerrikoduna; gizonena belaunetara arte iristen zen eta emakumeena orporaino. Palioa (*pallium*) artilezko, lihozko edo kotoizko kapa zen, jatorriz greziarra, lauki- formakoa, ezkerreko sorbalda eta besoa libre uzten zituena.

⁴Martxoko kalendei egiten die erreferentzia. Martxoko lehen egun hartan, Marteren ohorez, emakumeei opariak egin ohi zitzaizkien.

⁵Erromatar mitologian, Minerva jakinduriaren, arteen eta gerra-tekniken jainkosa da, baita Erromaren babeslea eta artisauen patroia ere. Martxoaren 19-23an, Minervaren tenpluaren fundazioaren jaiak Marteren izenean ospatutako *quinquatria* jaiarekin kointziditzen zuen. Hori dela eta, Minervaren jaiak ospatzen zen egun horietan eta emakumeek igarleei galdetu ohi zieten etorkizunaz, eta horren ordainetan dirua eman behar zuten.

heztea ohore handia da, familiaren eta norberaren izena iraunarazteko.

PERIPLEKTOMENO.— Eta zertarako behar ditut nik seme-alabak, hainbeste senide edukita? Zoriontsu eta nahi dudan bezala bizi naiz, eta nire nahi guztiak betetzen ditut. Nire heriotza heltzen denean ondarea senide guztien artean banatuko dudanez, nigatik kezkatuko dira, hurbil izango ditut, arduraz; egunsentia heldu orduko etxeko atarian izango ditut, gaua ea nola pasa dudan galdezka. Ni zaintzen nautenak izango ditut seme-
alabatzat: sakrifizio bat⁶ antolatzen badute, euren zatia baino handiagoa ematen didate; oturuntzara eramaten naute; euren etxera gonbidatzen naute bazkaltzera eta afaltzera. Gutxien eskaintzen didana zoritxarrekoa sentitzen da; euren artean lehiatzen dira zeinek gehiago emango, eta nik neure buruari esaten diot: nire ondasuna irentsi nahi dutelako zaintzen naute hain ongi, jan-edanak eta opariak emanaz. 710

PALESTRION.— Zure bizitza antolatzen iaioa zara, badakizu zeren beharra duzun. Behar duzun guztia daukazunez, bikiak edo hirukiak izango bazenitu bezala bizi zara.

PERIPLEKTOMENO.— Seme-alabak izan banitu, nahikoa zoritxar eta nahigabe izango nuke jadanik, ala Polux: batek sukarra izango balu, hil egingo dela pentsatuko nuke; eta eroriko balitz (mozkortuta edo zalditik behera), hanka bat edo kaskezurra apurtu zaiola. 720

PLEUSIKLES.— Halako gizon batek, zalantzarik gabe, ondasunak izatea eta bizitza luzeaz gozatzea merezi du. Badaki ondasunei nola eutsi eta zelan gozatu; gainera, lagunei laguntzen die.

PALESTRION.— Maitagarria zara, benetan! Jainko-jainkosek babes nazatela, otoi: jainkoek erabaki dute pertsona guztiek ez dutela molde bereko bizitza izan behar. Ez al zarete ohartu nola tasatzen dituzten salgaiak ikuskatzaile adituek? Salgai onen kasuan, kalitatearen araberrako prezioa jartzen dute; salgai txarren kasuan, saltzaileari galerak eragingo dizkion prezioa jartzen dute. Jainkoek horrela jokatu behar lukete gizakion bizitza antolatzean: pertsona atseginei bizitza luzea eman, eta gaiztoei, aldiz, hainbat arinen kendu hatsa. Gauzak horrela izango balira, pertsona gaizto gutxiago egongo lirateke, ez lukete maltzurkeriaz jokatu eta, gainera, pertsona zintzo eta zuzenek ez 730

⁶Sakrifizioak erlijio-errituetan oso ohikoak ziren. Horietatik guztietatik bat gailendu zen: animalia bati edo zenbaiti lepoa moztu ostean, zati bat jainkoei eskaintzea, eta gainerakoa sakrifizioan parte hartutakoek jatea.

lukete hainbesteko gasturik izango.

PERIPLEKTOMENO.— Ergelek eta ezjakinek soilik kritikatzten eta gaitzesten dituzte jainkoen asmoak. Ez gaitezen horri buruz gehiago mintza. Orain erosketak egitera noa, ene gonbidatua, nire etxean hainbeste merezi duzun goxotasunaz egon zaitezten, ezer falta gabe.

PLEUSIKLES.—Gastu asko eragin dizut jadanik. Hiru egun pasata, gonbidatua 740 enbarazua bilakatu ohi da, eta hamar egun izatera helduz gero, Iliasko gorrotoak sortzen dira⁷; nahiz eta nagusiari enbarazu egin ez, esklaboak marmarka hasten dira.

PERIPLEKTOMENO.—Nire esklaboak zerbitzatzeko daude, ene gonbidatu maitea, eta ez, alderantziz, ni haien mende egoteko. Niri atsegina ematen didanak gogaitzen baditu, hor konpon! Nik agindutakoa bete behar dute, zigorrak ezarri edo indarra erabili behar badut ere. Baina, esan bezala, orain erosketak egitera noa.

PLEUSIKLES.— Horrekin tematuta bazaude, ados. Baina, zentzuz jokatu, ez gehiegi 750 erosi, edozerekin konformatzen naiz eta.

PERIPLEKTOMENO.— Ez hasi betiko kontu zaharrekin, gonbidatu maitea, eskekoek esaten dute hori-eta. Afaria mahaira ekartzean honela esaten dute: «zertara dator halako gastua? Zoratuta zaude, ala Herkules! Hamar lagunentzako janaria erosi duzu». Eurengatik erositakoa gaitzesten dute, baina gero ederki asko irensten dute.

PALESTRION.— Horrela izaten da, bai, ala Polux. Ongi baino hobeto dakizu!

PERIPLEKTOMENO.— Eta gainera, inoiz ez dute esango, mahaian janari gehiegi egon arren, «eraman zerbait; kendu erretilu hori; eraman urdaiazpikoa, jadanik ez dut nahi-eta; har ezazu haragi errea; itsas aingira hau gozo egongo da hotzik ere; hartu, kendu, 760 eraman». Inortxori ere ez ez diozu halakorik adituko. Aitzitik, ondo luzatu eta ia mahai gainera egingo dute salto, amorraturik.

PALESTRION.— Zein ongi dakien gizon zintzo honek gainerakoekin hutsak

⁷ *Iliada* etengabeko zorigaiztoko gertaeren sinbolo bilakatu zenez, baliteke Plautok esklaboen haserrea Akilesen suminarekin konparatu nahi izana.

deskribatzen.

PERIPLEKTOMENO.— Ba, ez dut bukatu. Denbora izango banu, gehiago luzatuko nintzateke.

PALESTRION.—Beno, orain eskuartean dugunaz egin behar dugu berba. Entzun iezadazue biok. Zure laguntza behar dut, Periplektomeno, amarru ezin hobea bururatu zait-eta militarren bilo luze hori mozteko⁸, eta maitemindu gazteak Filokomasia berreskuratu eta eraman ahal izateko.

PERIPLEKTOMENO.— Ea, kontaiguk.

770

PALESTRION.— Emadazu eskuan duzun eraztuna.

PERIPLEKTOMENO.— Zertarako behar duk?

PALESTRION.— Ematen didazunean azalduko dizut bururatu zaidan azpijokoa.

PERIPLEKTOMENO.— Tori. Erabili nahi dukenerako.

PALESTRION.— Eta, trukean, azpijokoa zertan datzan azalduko dizut.

PERIPLEKTOMENO.— Ondo garbitu dizkiagu belarriak hiri entzuteko.

PALESTRION.— Nire ugazabak emakume ezkonduak atsegin ditu, beste inork ez bezainbeste.

PERIPLEKTOMENO.— Egia biribila; hala uste diat nik ere.

PALESTRION.— Paris⁹ baino askoz ere ederragoa dela dio, eta horregatik Efesoko emakume guztiak bere atzetik dabiltzala.

PERIPLEKTOMENO.— Ala Polux! Senar askok nahiko liketek gezur hutsa izatea, baina nik sinesten diat. Hortaz, ez hadi asko luzatu, Paestrion.

780

PALESTRION.— Emakume erakargarri, lirain, kokin eta lizuntxo bat lortuko zenuke

⁸ Euskaraz “militarrari adarra jotzeko” esango genuke.

⁹Paris (Alexandro izenaz ere ezaguna) Troiako printzea zen, Priamo erregearen eta Hekubaren semea. Oso ederra izateagatik zen ezaguna, bai eta Helena bahitzean Troiako Gerra eragiteagatik ere.

niretzat?

PERIPLEKTOMENO.— Jaiotzez librea edo libertoa¹⁰?

PALESTRION.— Berdin zait. Emakume handinahi bat, bere gorputzaz baliatzen dakiena eta bularraldea jateko modukoa daukana, zeren bihotzik duen emakumerik ez baita mundu honetan.

PERIPLEKTOMENO.— Esperientziaduna edo hasiberri bat?

PALESTRION.— Emakume puska bat, ahalik eta erakargarriena eta gazte-gaztea.

PERIPLEKTOMENO.— Bada, ezagutzen diat halako bat, nire babespekoa¹¹, prostituta gaztetxoa. Baina, zertarako nahi duk?

790

PALESTRION.— Zure etxera eraman dezazun berehala, eta gero hona ekarri emakume ezkondu baten itxuraz, dotore-dotore jantzita eta txirikordekin eta zintekin ondo baino hobeto orraztuta. Zure emazte izatearen itxurak egin behar ditu. Azalduiozu guztia.

PERIPLEKTOMENO.— Ez zakiat nora hoan.

PALESTRION.— Itxaron eta jakingo duzue. Aipatu didazun emakumeak ba al du neskame esklaborik?

PERIPLEKTOMENO.— Bai. Ezin azkarragoa duk.

PALESTRION.— Bera ere beharko dugu. Azaldu neska gazteari eta haren neskame esklaboari neska gazteak zer egin behar duen: sinetsarazi behar du zure emaztea dela eta militarraz erabat maiteminduta dagoela (*gero eta ozenago hitz egin*); eraztun hau bere esklaboari eman diola eta berak niri entregatu didala militarri emateko, ni bitartekaria banintz bezala.

PERIPLEKTOMENO.— Ongi baino hobeto entzuten haut, ez egin garrasi gorrari bezala. Oraindik entzumen ona diat...

799a

¹⁰Libertoa askatasuna lortutako esklabo zen.

¹¹Jatorrizkoan *clien*a 'klientea', hain zuzen maila sozioekonomiko altuagoko pertsona baten babespean zegoena.

PALESTRION.— Argibideak ematen dizkiezunean, militararengana joango naiz ¹² eta eraztuna emango diot. Zure emazteak eman didala esango diot, bien arteko hitzordua lotzen laguntzeko. Oso ongi ezagutzen dut... irrikatan jarriko da! Kokin horrek emakume ezkonduak ditu atsegin, guztiaren gainetik.

PERIPLEKTOMENO.— Eguzkiari berari eskatu izan bazenio, ezin izango zituzkeen emakume aproposagoak topatu, inondik ere. Egon lasai.

PALESTRION.— Orduan, zure ardura da. Bizkor ibili, presazkoa da-eta (*Periplektomeno joan*). Eta orain, Pleusikles, entzun zuk.

PLEUSIKLES.— Hire esanetara naukak.

PALESTRION.— Militarra etxera doanean, ezta pentsatu ere Filokomasiaren izena aipatzerik, entzun?

PLEUSIKLES.— Nola deitu behar zioat, orduan?

PALESTRION.—Justa.

PLEUSIKLES.— Ah bai, lehen esan dugun bezala.

PALESTRION.— Bikain, orduan.

PLEUSIKLES.— Oroituko nauk, baina zergatia jakin nahi diat.

PALESTRION.— Une aproposa heltzen denean azalduko dizut; orain, ixo. 810 Periplektomeno bere egitekoa betetzen hasi da jadanik eta laster da zure txanda.

PLEUSIKLES.— Hortaz, banoak barrura.

PALESTRION.— Adi ibili eta esanikoa ondo bete!

¹² Jatorrizko testuaren bertso-lerro bat galdu egin zenez, ez dago argi zer zioen. Beraz, egoera horretan aproposa den esaldi bat osatu dute editoreek.

BIGARREN AGERRALDIA

PALESTRION, LURZION

PALESTRION.— (*Bere kasa*) A zer nolako nahaste-borrastea sortu dudan! Azpijoko aparta antolatu diat! Militarrari ohaidea lapurtuko zioat, nire soldaduak ongi aritzen badira, noski. Baina, beste horri deituko zioat: «Aizak, Eszeledro! Hator atera, beste egitekorik ez baduk. Palestriion nauk!»

LURZION.— (*Militarraren etxetik atera*) Eszeledro ez zagok ezertarako.

PALESTRION.— Zergatik?

LURZION.— Lo zagok, zurrupaka.

PALESTRION.— Zurrupaka?

LURZION.— Zurrungaka esan nahi nian. Baina zurrunga egitea eta zurrupa egitea oso 820 antzekoak direnez...

PALESTRION.— Baina, baina... Eszeledro lotan al dago etxe barruan?

LURZION.— Bai. Bere sudurra, aldiz, ez, txistuka ari duk-eta.

PALESTRION.— Sotolaria denez, ziur nauk ezkutuan edaten egon dela, nardoa¹³ ardoarekin nahastera joan denean. Hiri hizketan ari nauk, sotolariorde lotsagabea!

LURZION.— Zer gertatzen da?

PALESTRION.— Nolatan geratu da lo?

LURZION.— Begiak itxita!

PALESTRION.— Ez diat hori galdetu, alproja hori. Hurbildu nigana. Larrutik ordainduko duk, egia kontatzen ez badidak: hik eman al diok ardoa?

LURZION.— Inola ere ez.

¹³ Ardoari hainbat espezia eta landare nahasten zitzaizkion, usain desberdinak emateko; horien artean, nardo-hostoak aipatzen dira.

PALESTRION.— Ukatzen ari haiz?

LURZION.— Noski, ala Herkules. Egia esatea debekatu zidak. Eta ez zioat atera zortzi 830 txopineko¹⁴ pitxerra, eta ez dik edan bero-bero bazkalorduan.

PALESTRION.— Eta hik ere ez duk edan, ezta?

LURZION.— Jainkoek zigortu nazatela, edan badut... edan ahal izan badut.

PALESTRION.— Baina zer egin duk orduan?

LURZION.— Irentsi egin diat. Hain zegoan bero, eztarria bera erre didala!

PALESTRION.— Batzuk ardoz gainezka zaudeten bitartean, beste batzuek ozpindun ura besterik ez diagu edaten... Sotolari eta sotolariorde ederren eskuetan zagok ardandegia!

LURZION.— Hik berdin jokatu huke, ala Herkules. Ezin dukenez ardorik edan, 840 inbidiatan hago.

PALESTRION.— Edan al duk ardorik beste noizbait? Erantzun, alferrontzi horrek! Eta abisatuta hago: ez badidak egia aitortzen, Lurzion, torturatzera bidaliko haugu.

LURZION.— Egiatan? Nik kontatu diadana zabaltzeko, nire ardandegi bete-betetik botatzeko eta hi bertako arduradun bihurtu eta beste laguntzaile bat topatzeko?

PALESTRION.— Ezetz, ala Polux, ez duk hori nire asmoa. Kontatu dena lasai.

LURZION.— Benetan zioat, ala Polux, nik ez diat ardorik ateratzen ikusi. Niri agintzen zidaan ardo bila joateko eta nik esanikoa besterik ez nian betetzen.

PALESTRION.— Horregatik egon ohi dituk anforak¹⁵ behera begira. 850

LURZION.— Ez, ala Herkules, ez duk hori arrazoa. Kontua da bodegako izkina bat nahiko labainkorra dela eta, bertan, anforen parean bi librako¹⁶ pitxerra zegoela, zeina

¹⁴Latinez *hermina* deitzen zaio, likidoak neurtzeko neurria da. Txopin bat litro erdi izango litzateke.

¹⁵Ontzi luze eta estua, bi euskarri eta lepo luzea dituena eta elikagaiak gordetzeko erabiltzen zena. Hondarretan sartzen ziren tente izateko, eta hustu ahala etzanda geratzen ziren.

batzuetan egunean zehar hamar aldiz betetzen zen. Nik neuk ikusi diat nola betetzen eta husten zen. Pitxerra Bakoren ohoretan uzten zenean¹⁷, anfora guztiak behera begira husten zituan.

PALESTRION.— Aire, barrura! Aire, oraintxe bertan! Zuek antolatzen dituzue Bakanal¹⁸ galantak, ala Herkules! Oraintxe bertan joango nauk forora eta berehala ekarriko diat hire ugazaba.

LURZION.— Nireak egin dik! Ugazabak gurutzera bidaliko nauk, nik kontatu ez eta 860 jazotakoa ezagutzean. Baina ez, ala Herkules! Ihes egingo diat eta nire zigorra gaurkoz atzeratzea lortuko diat. (*Publikoari*) Honi ez esan tutik ere, mesedez!

PALESTRION.— Nora demontre hoa?

LURZION.— Mandatu bat egin behar diat, berehala itzuliko nauk.

PALESTRION.— Mandatu bat? Norentzat?

LURZION.— Filokomasiarentzat.

PALESTRION.— Ongi duk, baina itzuli lehenbailehen.

LURZION.— Kanpoan naizen bitartean zigorra ezartzen bada, ordea, jaso hik nirea.

PALESTRION.— Orain ulertzen diat Filokomasiak antolatutako plana: Eszeledro lo dagoenez, bere laguntzailea kanpora bidali dik, beste etxera inork ikusi gabe joateko. Bai ideia bikaina! Hor zatorrek Periplektomeno, eskatutako emakumearekin. Ederra 870

¹⁶*Libra* Antzinako Erroman masa-unitatea zen. Pisutan, 328.9 gramoren balioa zuen, eta bolumenean litro erdi inguru. Euskal Herriko tradizioan pisu-unitate gisa bakarrik erabili da (hamazazpi ontza, hots, kilo erdia baino zerbait gutxiago), baina halere Erromako unitatearen izena erabili dugu hemen pitxerraren edukiera adierazteko: bi librako pitxerra litro batekoa izango litzateke, gutxi gora behera.

¹⁷Bako mahatsaren, ardoaren eta mozkorraren jainkoa zen Antzinako Erroman, Jupiter eta Semeleren semea. Hemen *bacchabatur* ‘Bakoren opari gisa uzten zenean’ eta *vacabatur* ‘husten zenean’ soinu-jokoa dago.

¹⁸Bakanala Bako jainkoren omenez erromatarrek ospatzen zuten jaia zen. Emakumeek hartzen zuten parte gehienbat: biribilak osatuz dantzatzen zuten, Bako irudikatzen zuen bakarlari baten inguruan. Ezkutuko ugalkortasun-errituak ziren, eta gauez ospatu ohi ziren.

emakumea! Jainkoak gure alde zaudek, ala Herkules. Eta zer dotore datorren! Ez dik prostituta itxurarik. Azpijokoa ezin hobeto ateratzen ari zaidak, alajaina!

HIRUGARREN AGERRALDIA

PERIPLEKTOMENO, AKROTELEUTIA, MILFIDIPA, PALESTRION

PERIPLEKTOMENO.— Akroteleutia, zehatz-mehatz azaldu dizut plana etxean, eta zuri ere bai, Milfidipa. Gauzatu behar duzuen azpijokoa eta haren helburua ongi ulertu ez badituzue, berriro azalduko dizuet orain. Garrantzitsuena dena ongi ulertzea da. Behin hori eginda, beste zerbaiti buruz hitz egingo dugu.

AKROTELEUTIA.— Inozokeria eta ergelkeria galanta izango litzateke niri ez dagozkidan arazoetan sartzea eta nire laguntza eskaintzea, maltzurkeriaz eta azpikeriaz 880 ondo baino hobeto jokatzeko jakingo ez banu.

PERIPLEKTOMENO.— Hala eta guztiz ere, komeni da abisu ematea.

AKROTELEUTIA.— (*Ironiaz*) Bai, bai, bistan da komeni dela prostituta bati abisu ematea! Are gehiago, zu hitz egiten hasi bezain laster, nik neuk pentsatu dut militarra nola harrapatu.

PERIPLEKTOMENO.— Edonola ere, aholkuak ematea ez da inoren kalteko, jende asko eta asko ikusi baitut aholku onen lurraldetik aldentzen haiek begiztatu aurretik.

AKROTELEUTIA.— Maltzurkeriaz eta gaiztakeriaz jokatu behar bada, emakumeek betiereko oroimena dute, sekulakoa, oroitzeko. Baina, zintzotasunez eta prestutasunez jokatu behar bada, bat-batean ahazkor bilakatzen dira, eta ezin dira ezertaz ere oroitu. 890

PERIPLEKTOMENO.— Horrek beldurtzen nau hain zuzen, zeren bi eratara jokatu behar duzue: zuek biok militarri egiten diozuen kalteak onura ekarriko baitit niri.

AKROTELEUTIA.— Mesedea nahi gabe egiten badugu, ez izan beldurrik.

PERIPLEKTOMENO.— Emakumeak! Gauza txarra!

AKROTELEUTIA.— Ez kezkatu, are txarragoak aurkitzen dituzte-eta.

PERIPLEKTOMENO.— Ongi merezita duzue. Etorri nirekin.

PALESTRION.— (*Bere kasa*) Haiengana hurbilduko nauk? Zeren zain nagok? (*Altuan*)
Ala Herkules, pozten naiz zu ongi eta konpainia onean ikusteaz.

PERIPLEKTOMENO.— Une egokian etorri haiz, Palestrion. Hauexek dituk eskatu hituen bi emakumeak, hik nahi bezala jantziak.

PALESTRION.— Bikain, urte askotarako. Palestrionek agurtzen zaitu, Akroteleutia. 900

AKROTELEUTIA.— (*Periplektomenori*) Aizu, esan, nor da gizon hau? Betidanik ezagutuko banindu bezala aipatzen nau.

PERIPLEKTOMENO.— Gure ingeniaria da.

AKROTELEUTIA.— Agur, ingeniari hori.

PALESTRION.— Agur, neska gaztea. Galdera bat dut: nahikoa abisu eman dizu Periplektomenok?

PERIPLEKTOMENO.— Ongi baino hobeto ikasita datoz biak ala biak.

PALESTRION.— Kontatu dena. Beldur naiz ez ote duzuen hanka sartuko.

PERIPLEKTOMENO.— Zuk agindutakoa besterik ez diet azaldu.

AKROTELEUTIA.— Hau da, zure ugazaba militarrari adarra jo nahi diozula, ezta?

PALESTRION.— Ondo esan duzu.

AKROTELEUTIA.— Plana abilezia eta zuhurtasun handiz prestatu da, eta ezin egokiagoa eta zuhurra da.

PALESTRION.— Badakizu Periplektomenoren emaztearen itxurak egin behar dituzula.

AKROTELEUTIA.— Bai, badakit.

PERIPLEKTOMENO.— Eta militarrarengatik erabat txoratuta zaudela.

AKROTELEUTIA.— Lasai egon.

PALESTRION.— Eta zure neskame esklaboa eta biok bitartekari jardungo bagenu 910

bezala arituko garela.

AKROTELEUTIA.— Igarle bikaina izango zinateke, gertatuko dena ezin hobeto iragarri baituzu.

PALESTRION.— Eta zure neskame esklaboak eraztun hau ekarri didala nik militarri emateko zure izenean.

AKROTELEUTIA.— Hori da.

PERIPLEKTOMENO.— Zergatik errepikatzen dituk behin eta berriro eman beharreko pausoak? Ongi baino hobeto zekitek nola jokatu behar duten.

AKROTELEUTIA.— Hobe da, badaezpada ere. Nagusi maitea, ongi pentsatu: ingeniaria profesionala bada, behin gila ondo lerrokatuta, lotuta eta ipinita dagoenean, erraza da itsasontzia egitea. Orain, gila ongi baino hobeto daukagu kokatuta eta bertan lan egiten ari diren langile eta zurginak ez dira batere ezjakinak. Hornitzaileak egurra garaiz ekartzen badigu, itsasontzia berehala izango da prest.

920

PALESTRION.— Orduan ezagutzen duzu militarra, nire ugazaba?

AKROTELEUTIA.— Nolatan ez dut ezagutuko? Ez dago gaitzesten ez duen pertsonarik. Handiuste eta adultero horrek ilea kizkurtzen eta lurrinez bustitzen du bere burua.

PALESTRION.— Eta baliteke berak ere zu ezagutzea?

AKROTELEUTIA.— Ez, inolaz ere ez. Ez banau inoiz ikusi, nolatan ezagutuko nau?

PALESTRION.— Zein ongi hitz egiten duzun, zer nolako trebetasuna! Ezin hobeto aterako zaigu plana, ala Polux.

AKROTELEUTIA.— Zuk ekarri militarra eta ez kezkatu ezergatik ere. Ikusiko duzu zein ongi joko diodan adarra; bestela bota erru guztia niri.

PALESTRION.— Sartu etxera eta zuhurtziaz jokatu.

AKROTELEUTIA.— Eta zu zeurera.

PALESTRION.— Eraman emakumeak barrura, Periplektomeno. Ni, bitartean, forora joango naiz militarren bila. Eraztuna emango diot eta esango diot zure emazteak eman

930

didala, eta baita militarraz guztiz maiteminduta dagoela ere. Forotik bueltatzean, bidali Milfidipa guregana eta itxurak egin ditzala sekretuan baletor bezala.

PERIPLEKTOMENO.— Ados, ez kezkatu.

PALESTRION.— Zuek adi orain. Oraintxe bertan ekarriko dizuet militarra, amua irentsita.

PERIPLEKTOMENO.— Ondo ibili eta zorte on. (*Joan*) Nire gonbidatuak neskaxa, militarren ohaidea, Atenasera eramatea lortzen badut, gure azpijokoa antolatu bezala ateratzen bada, zer oparituko dizut?

AKROTELEUTIA.— Neskaxa prest al dago laguntzeko?

940

PERIPLEKTOMENO.— Atsegin eta arreta handiz lagunduko digu.

AKROTELEUTIA.— Ziur nago ezin hobeto joango zaigula. Gure maltzurkeria bateratuz gero, iruzur zitaletan ez gaitu inortxok ere garaituko.

PERIPLEKTOMENO.— Goazen etxera plana zuhurtziaz aztertzeraz, egin beharrekoa arreta handiz eta arduraz zehaztera, militarra datorrenean zalantzarik ez izateko.

AKROTELEUTIA.— Zeu zara luzamendutan zabilzana!

IV. EKITALDIA

LEHENENGO AGERRALDIA

PIRGOPOLINIZES, PALESTRION

PIRGOPOLINIZES.— Zein pozgarria den egiteko guztiak pentsatu bezala bikain ateratzen zaizkizula ikustea. Gaur, Seleuko erregearengana¹⁹ bidali diat nire bizkarroia, kontratatu ditudan mertzenarioekin batera, haren erreinua zaintzeko, nik atsedean hartzen 950 dudun bitartean.

¹⁹ Seleuko III.a Seleukotar Inperioko errege bat izan zen. Hiru urtez soilik izan zen errege, K. a. 225etik K. a. 223 arte.

PALESTRION.— Kezkatu zaitez zeure arazoez, eta ez Seleukoren kontuez, aukera bikain eta abantailatsua ekartzera natorkizu-eta.

PIRGOPOLINIZES.— Albo batera utziko diat dena hi entzutearren, jakina. Hitz egin. Arreta handiz entzungo haut.

PALESTRION.— Begiratu ingurura, lehenik, ez dezagun ehiztariren bat izan zelatan; kontu honekin isilean eta ezkutuan jokatzeari eskatu didate-eta.

PIRGOPOLINIZES.— (*Ingurura begiratu ostean*) Ez zagok inor.

PALESTRION.— (*Periplektomenoren eraztuna eman*) Tori, hemen duzu haren maitasunaren froga.

PIRGOPOLINIZES.— Zer duk hau? Nondik atera duk?

PALESTRION.— Zutaz maiteminduta eta zure edertasunaren egarriz dagoen emakume erakargarri eta desiragarri batena da; bere neskame esklaboak eman dit eraztuna, nik zuri 960 emateko.

PIRGOPOLINIZES.— Zer duk, emakume librea ala esklabo libertoa makilatxoari esker²⁰?

PALESTRION.— Nola ausartuko naiz ni liberto baten eta zure artean bitartekaritzan jarduten, ezin badiozu atzetik dituzun emakume libreen saldoari erantzun!

PIRGOPOLINIZES.— Ezkondua duk, ala alarguna?

PALESTRION.— Ezkondua eta alarguna.

PIRGOPOLINIZES.— Nolatan izan daiteke aldi berean ezkondua eta alarguna?

PALESTRION.— Gaztea delako eta gizon zahar batekin ezkondua dagoelako.

PIRGOPOLINIZES.— Hori duk, hori!

PALESTRION.— Emakume liraina eta xarmagarria da.

²⁰ Besteak beste, esklaboak emantzipatzearen ardura zuen liktoreak, magistratu nagusien laguntzaileak, zeinak makila bat eraman ohi zuen aginpidearen ezaugarri gisa.

PIRGOPOLINIZES.— Ea gezurretan ari haizen...

PALESTRION.— Bera da zure edertasuna merezi duen emakume bakarra.

PIRGOPOLINIZES.— Hire hitzen arabera, ezin ederragoa izan behar duk, ala Herkules!
Baina, nor duk?

PALESTRION.— Periplektomeno gure auzokide zaharraren emaztea. Zurekin txora-
txora eginda dago eta agurea utzi nahi du betiko; ezin du ikusi ere egin. Horregatik 970
bidali nau zugana, aukera bat eman diezaiozun eskatzera eta erregutzera.

PIRGOPOLINIZES.— Hark nahi badu, ni desiratzen nagok, ala Herkules.

PALESTRION.— Hark? Hura desiratzen dago!

PIRGOPOLINIZES.— Eta zer egingo dugu etxean dudan ohaidearekin?

PALESTRION.— Bidali etxetik, eta doala nahi duen lekura. Esaiozu haren ahizpa bikia
eta ama bila etorri zaizkiola Efesora.

PIRGOPOLINIZES.— Ama haren bila?

PALESTRION.— Dakitenek hori diote.

PIRGOPOLINIZES.— Aukera ezin hobea emakume hau etxetik bidaltzeko, ala
Herkules!

PALESTRION.— Baina dena bikain egin gura duzu, ezta?

PIRGOPOLINIZES.— Esan eta egingo diat.

PALESTRION.— Lehenbailehen bota nahi duzu eta, gainera, onean joatea?

PIRGOPOLINIZES.— Noski.

980

PALESTRION.— Orduan, honako hau egin behar duzu: aberastasuna soberan duzunez,
esaiozu eman dizkiozun urre eta bitxi guztiak eramateko opari gisa. Har dezala dena eta
joan dadila nahi duen tokira, zugandik urrun.

PIRGOPOLINIZES.— Ongi duk... baina ea, honek alde egitean, besteak ez duen iritziz
aldatzen! Adi!

PALESTRION.— Ez zaitetz huskerietan pentsatzen jarri, bere begiak baino maiteago zaitu-eta!

PIRGOPOLINIZES.— Venusek²¹ babesten naik.

PALESTRION.— Ixo, atea irekitzen ari dira. Jarri albo batera... Irteten ari den txalupa hori bere mezularia da.

PIRGOPOLINIZES.— Zein txalupa?

PALESTRION.— Bere neskametxoia da hor kanpora datorrena, zuri entregatutako eraztuna eman zidan emakumea.

PIRGOPOLINIZES.— Bai neskatxa polita, ala Polux!

PALESTRION.— Bestearekin konparatuta, hau tximinoa eta hegazti itsusia besterik ez da. Ez al duzu ikusten begiradarekin ehizan eta belarriekin zelatan dabilela?

990

BIGARREN AGERRALDIA

MILFIDIPA, PIRGOPOLINIZES, PALESTRION

MILFIDIPA.— (*Bere kasa*) Etxe aurrean dago jadanik nire jolasetarako zirkua. Disimulatu egingo dut, ikusi ez banitu bezala eta hor direla jakingo ez banu bezala.

PIRGOPOLINIZES.— Ixo, belarriak findu, ea niri buruz zerbait esaten duen.

MILFIDIPA.— (*Ingurura begira*) Gainerakoen arazoez norberaren kontuez baino gehiago kezkatzen denen bat al dago inguruan? Eta zertan ari naizen begira zelatan dabilenen bat, ez duelako lanik egin behar bizimodua aurrera ateratzeko? Beldur naiz halakoek bidean enbarazu egingo ote dioten nire ugazabandreak, etxetik ateratzen badira hark kalea gurutzatzen duen bitartean. Nire ugazabandre hori Pirgopolinizes militarra ikusteko irrikaz baitago eta bihotza bera ikaratzen baitzaio, haren edertasun larregikoak maitasunez itsututa utzi du-eta!

²¹Venus maitasunaren, edertasunaren eta ugalkortasunaren jainkosa zen erromatar mitologian.

PIRGOPOLINIZES.— Emakume hau ere nitaz maiteminduta zagok! Nire edertasuna 1000
goresten ari duk.

PALESTRION.— Haren hitzek ez dute errauts²² beharrik.

PIRGOPOLINIZES.— Zergatik?

PALESTRION.— Argi eta garbi hitz egiten duelako. Esaten ari den guztia zu
goraipatzeko da, ez du mespretxuzko hitzik esan.

PIRGOPOLINIZES.— Hau ere emakume ederra eta xarmagarria duk. Palestrion,
emakume hau gustatzen hasi zaidak, ala Herkules.

PALESTRION.— Baina, ez duzu beste emakumea ikusi ere egin eta!

PIRGOPOLINIZES.— Ikusi banu bezala duk, zure hitzaz fidatzen bainaiz. Baina, bera
ez dagoela, txalupatxoak bere maitasunaren garrekin limurtu naik.

PALESTRION.— Ez maitemindu emakume honekin, ala Herkules, nire emaztegaia da-
eta. Honen ugazabandrearekin ezkontzen bazara, ni berehala ezkonduko naiz honekin.

PIRGOPOLINIZES.— Orduan, zergatik ez haiz beragana hurbiltzen eta hitz egiten
hasten?

PALESTRION.— Etorri nirekin, orduan.

PIRGOPOLINIZES.— Hire itzala nauk.

MILFIDIPA.— (*Bere kasa*) Ea bila nabilen gizona aurkitzen dudan! 1010

PALESTRION.— Halaxe izango da. Ez kezkatu, izan konfiantza. Hemen duzu bilatzen
ari zarena non dagoen dakiena.

MILFIDIPA.— Nor ari da hizketan?

PALESTRION.— Zure asmoetako kidea eta zure egitasmoetako partaidea.

MILFIDIPA.— Orduan nire sekretua jada ez da sekretu, ala Polux.

²²Errautsa burdinari distira emateko eta arropa garbitzeko erabili ohi zen.

PALESTRION.— Bada eta ez da.

MILFIDIPA.— Nolatan?

PALESTRION.— Fidagarriak ez direnentzat sekretua da, baina ni konfiantzakoa naiz.

MILFIDIPA.— Esan, orduan, zein den pasahitza, jakiteko gure bakozeen elkartekoa²³ zaren ala ez.

PALESTRION.— Emakume bat norbaitekin maiteminduta dago.

MILFIDIPA.— Halako asko dira, ala Polux.

PALESTRION.— Baina ez dira asko atzamarreko oparia bidaltzen dutenak.

MILFIDIPA.— Orain ulertzen dut; egia ikusarazi didazu. Norbait gehiago al dago zurekin?

PALESTRION.— Badago eta ez dago.

MILFIDIPA.— Zatoz zeu bakarrik, nirekin bakarka egotera.

PALESTRION.— Elkarrizketa luzea ala laburra?

1020

MILFIDIPA.— Hiru hitz besterik ez.

PALESTRION.— (*Militarrari*) Laster noa zuregana.

PIRGOPOLINIZES.— Eta ni, zer? Botata utziko al duk edertasun berdingabeko gizona, egitandi izugarriak eginikoa?

PALESTRION.— Izan pazientzia eta itxaron zutunik. Zure maite-kontuez arduratzen ari naiz.

PIRGOPOLINIZES.— Hainbeste itxarroteak oinazetu egin naik!

PALESTRION.— Ongi baino hobeto dakizu halako gaietan tentu handiz ibili beharra dagoela.

²³ Bakanalei egiten die erreferentzia. Gainerako elkarteetan bezala, honetan ere sarbide-errituak eta erritu sekretuak zeuden, eta bertako kideak seinale edo pasahitz sekretu bidez elkar identifikatzen ziren.

PIRGOPOLINIZES.— Aurrera, aurrera. Egin heuk nahi dukena.

PALESTRION.— (*Publikoari*) Harria bera baino burugogorragoa da. (*Milfidiparengana hurbildu*) Hemen nago. Zer nahi duzu?

MILFIDIPA.— Esan nola nahi duzun nik jokatzea.

PALESTRION.— Berarekin txora-txora eginda balego bezala...

MILFIDIPA.— Bai, hori badakit.

PALESTRION.— Goraipatu haren edertasuna eta itxura, eta egitandi guztiak aipatu.

MILFIDIPA.— Horretarako gai naiz sobera ere, erakutsi berri dizudan bezala.

PALESTRION.— Gainerakoaz arduratu arretaz. Erne ibili eta adi egon nire esanei.

PIRGOPOLINIZES.— Zer, nitaz arduratuko al haiz behingoz? Hator hona behingoz! 1030

PALESTRION.— Hemen nago, zure esanetara.

PIRGOPOLINIZES.— Zer kontatu dik horrek?

PALESTRION.— Emakumea kexa eta kexa dabilela, zeharo atsekabetuta, larrituta eta negarrez, zure beharra duelako, zu falta zaituelako. Horregatik bidali du beste emakume hau zure bila.

PIRGOPOLINIZES.— Esaiok hurbiltzeko.

PALESTRION.— Baina, badakizu nola jokatu behar duzun, ezta? Harrokeriaz aritu behar duzu, gogorik ez duzulakoan. Gero, egidazu garrasi, halako jendar tean jendar teratu zaitudalako.

PIRGOPOLINIZES.— Ados, ulertu diat, eta hik esan bezala arituko nauk.

PALESTRION.— Orduan, zurekin hitz egin nahi duen emakumeari deituko diot?

PIRGOPOLINIZES.— Zerbait nahi baldin badu, hurbildu dadila.

PALESTRION.— Emakumea, zerbait nahi baldin baduzu, hurbildu guregana.

MILFIDIPA.— Egun on, Eder hori.

PIRGOPOLINIZES.— (*Publikoari*) Nire ezinenaz deitu nau! (*Milfidipari*) Jainkoek zure nahiak bete ditzatela.

MILFIDIPA.— Bizitzaz zure alboan gozatzea...

PIRGOPOLINIZES.— Gehiegi eskatzen duzu.

MILFIDIPA.— Ez naiz nitaz ari, ugazabandrez baizik. Zuregatik hil beharrean dago. 1040

PIRGOPOLINIZES.— Beste askok ere berdina nahi dute, eta ezin dute lortu.

MILFIDIPA.— Ez da batere harritzekoa zure burua hain estimu handitan izatea, ala Kastor. Hain zara ederra eta ospetsua zure ausardiagatik, gorpuzkeragatik eta balentriengatik! Egon al da jainko izatea gehiago merezi izan duen beste gizonik?

PALESTRION.— (*Bere kasa*) Hau ez delako inolaz ere gizona, ala Herkules. Putreak hau baino gizonago dituk.

PIRGOPOLINIZES.— Hainbeste goستن nauenez, handiuste itxurak egingo ditut.

PALESTRION.— (*Milfidipari ahapeka*) Ikusten al duzu nola harrotzen den ergel hori? (*Militarrari*) Emaiozu erantzun egokia; hauxe da aipatutako beste emakume horren partez etorri dena.

PIRGOPOLINIZES.— Guztietatik, zein? Hainbeste emakume ditut atzetik, ezinezkoa baitzait guztiez oroitzea.

MILFIDIPA.— Zure atzamarrak janzteko bereak erantzi dituena. Nik eman nion eraztun hau zure esklaboari zure maitasunaren egarriz dagoen emakumearen partetik, eta berak zuri eman dizu.

PIRGOPOLINIZES.— Zer nahi duzu, orduan? Esan. 1050

MILFIDIPA.— Desiratzen zaituenari, zugatik bakarrik bizi den emakumeari uko ez egitea. Zure esku dago hari esperantza ematea edo kentzea.

PIRGOPOLINIZES.— Eta zer da berak nahi duena?

MILFIDIPA.— Zurekin hitz egitea, zu besarkatzea, zu laztantzea. Eskua luzatzen ez badiozu, itxaropena guztiz galduko du. Nire bihotzeko Akiles²⁴, entzun nire eskariak: salba dezala gizon eder horrek emakume eder hura; ez, ez ezkutatu zure eskuzabaltasuna, hirien konkistatzaile ahaltsu eta erregeen hiltzaile ahalguztidun horrek!

PIRGOPOLINIZES.— Ene bada, zein kontu desatsegina! (*Palestrioni*) Zenbat aldiz debekatu diat, alferrontzi horri, ni jendartean edozeinekin konprometitzea?

PALESTRION.— Entzun duzu, emakumea? Lehen esan eta orain errepikatu egingo dizut: txerri har honi ez bazaio esku-erakutsiren bat ematen, ez dio inolaz ere emeari bere hazia emango. 1060

MILFIDIPA.— Berak eskatzen duen beste emango diogu.

PALESTRION.— Filiporen urrezko talentu²⁵ bat. Ez du inorengandik gutxiago onartuko.

MILFIDIPA.— Bai merkea, ala Kastor!

PIRGOPOLINIZES.— Noski, ni ez naiz batere diruzalea. Aberastasuna soberan dut... mila modio²⁶ baino gehiago daukat filipotan!

PALESTRION.— Bitxiak albo batera utzita, noski, zeren zilarrezko mendiak baitauzka; zilar-pilak ez, zilar-mendiak, Etna mendia²⁷ baino altuagoak!

MILFIDIPA.— (*Bere kasa*) Gezurrontzi halakoa!

²⁴ Akiles Troiako gerran aritutako heroia izan zen, Homeroren *Iliadako* pertsonaia nagusia. Peleos mirmidoniarren erregearen eta Tetis ninfaren semea zen, eta haren anaia Parisek hil zuen Troiako harresitik gezi bat bota zionean orpora, haren gorputzeko leku zaurigarri bakarrera.

²⁵ Talentua Antzinateko moneta-unitatea zen; Filipoa, aldiz, Filipino II.a erregeak sortutako urrezko txanpona izan zen. Militarrek urrezko 3.000 filipo eskatzen zituen guztira.

²⁶ Modioa aleak neurtzeko edukiera-unitatea zen Antzinako Erroman. Haren gaur egungo baliokidea 8,75 litro litzateke.

²⁷ Etna Siziliako ekialdeko kostaldean dagoen sumendia da. Europako sumendi aktiborik handiena da eta gaur egun 3.326 m ditu.

PALESTRION.— (*Milfidipari ahapeka*) Ederto jotzen diot adarra!

MILFIDIPA.— (*Palestrioni ahapeka*) Eta ni? Zelan ari naiz?

PALESTRION.— Ezin hobeto!

MILFIDIPA.— (*Militarrari*) Mesedez, erantzun lehenbailehen.

PALESTRION.— Zergatik ez diozu behingoz erantzuten, baiezkoa edo ezezkoa?

MILFIDIPA.— Zergatik oinazetzen duzu zorigaiztoko emakumearen bihotza? Ez dizu inoiz txarrik egin.

PIRGOPOLINIZES.— Esan hona irteteko guregana; bere desio guztiak beteko ditudala. 1070

MILFIDIPA.— Orain behar bezala jokutzen ari zara... maite zaituena maite baituzu...

PIRGOPONINIZES.— (*Ahapeka*) Emakume hau ez da batere ergela... ez horixe!

MILFIDIPA.— ... ez baitiozu nire eskariari uko egin, eta erregu egiten utzi baitidazu.
(*Palestrioni ahapeka*) Zelan ari naiz?

PALESTRION.— Ezin diot barreari eutsi, ala Herkules! Kar-kar-kar!

MILFIDIPA.— Badakit, horregatik urrundu naiz zugandik.

PIRGOPOLINIZES.— Ez dakizu zer nolako ohorea erakusten ari natzaion zure ugazabandreak.

MILFIDIPA.— Ondo dakit, bai, eta berari jakinaraziko diot.

PALESTRION.— Horrelako faborea urrearen prezioan saldu niezaiokeen beste bati.

MILFIDIPA.— Benetan sinesten dut, ala Polux.

PALESTRION.— Haurdun uzten dituen emakumeen semeak gerrari peto-petoak izaten dira eta 800 urte bizitzera heltzen dira!

MILFIDIPA.— (*Bere kasa*) Zu bai zu isekari peto-petoa!

PIRGOPOLINIZES.— Gezurra galanta! Mila urte bizitzera heltzen dira, mendez mende.

PALESTRION.— Urteak kendu ditut, gezurretan nenbilela pentsa ez zezan.

1080

MILFIDIPA.— Ene bada! Zenbat urte biziko da gizon hau, bere semeak hainbeste urtez bizi badira?

PIRGOPOLINIZES.— Ba al zenekien Opsek²⁸ Jupiter erditu eta hurrengo egunean jaio nintzela ni?

PALESTRION.— Jainkoa baino egun bat lehenengo jaio izan balitz, bera izango zatekeen zeruko erregea.

MILFIDIPA.— Nahikoa da. Utzidazue bizirik ateratzen, hori posible bada.

PALESTRION.— Joan zaitezke, lortu duzu erantzuna-eta.

MILFIDIPA.— Banoa, eta oraintxe bertan ekarriko dizut nire ugazabandrea. (*Militarrari*) Zerbait gehiago nahi duzu?

PIRGOPOLINIZES.— Bai. Ni baino ederragoa ez izatea, nire edertasunak kezka asko sortzen baitizkit jadanik!

PALESTRION.— Zertan zaude hor geldi, ergelen antzera? Zergatik ez zara behingoz joaten?

MILFIDIPA.— Banoa.

PALESTRION.— Itxaron, gauza bat: kontatu dena xehetasunez, pozez txoratzen jarri behar da. (*Ahapeka*) Esan Filokomasiari, bertan badago, gure etxera etortzeko, militarra gertu dabilelako.

MILFIDIPA.— Nire ugazabandreakin dago, gure elkarrizketa ezkutuan entzuten.

1090

PALESTRION.— Oso ongi egina. Hobekiago jakingo dute zer nola jokatu.

MILFIDIPA.— Ez zaitez gehiago luzatu, banoa.

²⁸ Ops, erromatar mitologian, lurraren eta emankortasunaren jainkosa zen, eta greziar mitologiako Rearekin identifikatzen zen. Kronorekin (Saturno, greziar mitologian) Jupiter (Zeus) izeneko semea izan zuen.

PALESTRION.— Ez zaitut geldiaraziko, ezta ukituko, ezta... Isildu egingo naiz.

PIRGOPOLINIZES.— Esaiozu besteari lehenbailehen etortzeko, orain kontu honi helduko diogu-eta.

HIRUGARREN AGERRALDIA

PIRGOPOLINIZES, PALESTRION

PIRGOPOLINIZES.— Nire ohaidearekin zer egitea gomendatzen didak, Palestriion? Zeren, guztiz ezinezkoa zaidak beste emakumea etxera ekartzea hura kanporatu aurretik.

PALESTRION.— Zergatik galdetzen didazu halakorik? Aski ongi azaldu nizun nola konpondu dezakezun arazoa: oparitu hari urre eta bitxi guztiak; hartu ditzala, berarentzat 1100 gorde eta joan dadila. Eta esaiozu etxera itzultzeko aukera aparta suertatu zaiola, ama eta ahizpa bikia etorri direlako; haiekin ongi baino hobeto itzul daitekeela etxera.

PIRGOPOLINIZES.— Nolatan dakik hemen daudela?

PALESTRION.— Haren ahizpa ikusi dudalako.

PIRGOPOLINIZES.— Filokomasia bisitan etorri duk?

PALESTRION.— Bai, bisitan.

PIRGOPOLINIZES.— Eta zer iruditu zaik? Ederra al duk?

PALESTRION.— Indar betean dago!

PIRGOPOLINIZES.— Eta ama non dagoela esan dik ahizpak?

PALESTRION.— Ekarri dituen patroiak esan du itsasontzian dagoela, ohean, begiak bekarrez beteta eta puztuta dituelako. Patroiak auzokidearen etxean hartu du ostatu. 1110

PIRGOPOLINIZES.— Eta zer iruditu zaik? Gizon ederra al duk?

PALESTRION.—Utzi hori behingoz! Zu bai zu asto galanta hazitarako, berdin-berdin zoaz-eta arraren nahiz emearen atzetik. Orain, goazen gure zereginetara.

PIRGOPOLINIZES.— Lehen azaldutako aholkua hik betetzea nahi diat. Hitz egin heuk

berarekin... ongi moldatzen zarete-eta.

PALESTRION.— Ez al da hobeto zu zeu joatea eta zure arazoaz zeu arduratzea? Esaiozu ezkontzea baino beste erremediorik ez duzula, zure senideek aholkatu dizutela eta zure lagunek behartu egin zaituztela.

PIRGOPOLINIZES.— Hori uste duk?

1120

PALESTRION.— Noski.

PIRGOPOLINIZES.— Orduan, barrura noak. Bitartean, geratu zelatan eta, auzoko emakumea etortzen denean, abisatu.

PALESTRION.— Arduratu zure egitekoaz.

PIRGOPOLINIZES.— Antolatuta zagok jadanik: bere borondatez joaten ez bada, indarrez botako diat.

PALESTRION.— Ezta pentsatu ere. Hobe da bere borondatez joatea. Eta emaiozu aipatu dizudana: eraman ditzala eman dizkiozun urre eta bitxi guztiak.

PIRGOPOLINIZES.— Hori duk nire nahia, ala Herkules.

PALESTRION.— Ziu naiz arin konbentzituko duzula. Sartu zaitez, ez geratu geldi.

PIRGOPOLINIZES.— Zure esanetara (*Etxera sartu*).

PALESTRION.— (*Ikusleei hitz egin*) Zer iruditzen zaizue militar ezkontza-nahasle hau? 1130
Ez al da kontatu dizuedan modukoa? Orain Akroteleutia, bere neskame esklaboa edo Pleusikles ateratzea behar dut. Aukera aparta eskaini dit Egokierak, ene Jupiter: nigana etortzea desiratu ditudan horiexek ikusi ditut auzokidearen etxetik ateratzen.

LAUGARREN AGERRALDIA

AKROTELEUTIA, MILFIDIPA, PALESTRION, PLEUSIKLES

AKROTELEUTIA.— (*Pleusiklesi eta Milfidipari*) Etorri nirekin eta ongi begiratu ingurura, zelatariren bat agertu ez dadin.

MILFIDIPA.— Ez dut inor ikusten, ala Polux, bila ari garenaz gain.

PALESTRION.— Ni ere zuen bila nenbilen.

MILFIDIPA.— Zelan zaude, ingeniari maitea?

PALESTRION.— Ingeniaria? Ni? Ene bada!

MILFIDIPA.— Zer gertatzen da?

PALESTRION.— Zurekin konparatuz gero, ez dudala ziri bat horman iltzatzerik 1140
merezi.

MILFIDIPA.— Bai zera!

PALESTRION.— Maltzurra baino maltzurragoa da eta ateraldi xebreak ditu! Zein
ongi larrutu duen militarra!

MILFIDIPA.— Ez da asko izan.

PALESTRION.— Egon lasai, ezin hobeto doakigu. Zuek jarraitu orain arte bezala
jokatzen. Militarra etxera sartu da ohaideari ahizparekin eta amarekin batera Atenasera
joateko erregutzera.

PLEUSIKLES.— Primeran!

PALESTRION.— Eta, gainera, alde eginez gero, urre eta bitxi guztiak oparituko
dizkiola esan dio, nik hala aholkaturik.

PLEUSIKLES.— Ez da arazorik izango, neskatxak nahi duena desiratzen baitu
Pirgopolinizesek.

PALESTRION.— Ez al dakizu putzu baten hondotik gailurreraino igotzean, orduantxe 1150
izaten dela berriro erortzeko arrisku handiena? Bada, gu gailurrera hurbiltzen ari gara.
Militarrak zerbait susmatzen badu, alferrik aritu gara oraindainokoan. Aurretik baino
maltzurkeria are handiagoz jokatu behar dugu.

PLEUSIKLES.— Ez dugu materialik falta: hiru emakume, zu laugarrena, ni bosgarrena,
agurea seigarrena. Seiron artean pilatu dugun maltzurkeriarekin, ziur naiz edozein hiri
eraso genezakeela amarruz.

PALESTRION.— Tira, orain entzuidazue.

AKROTELEUTIA.— Horretarako etorri gara, aginduren bat eman behar badiguzu ere.

PALESTRION.— Oso ongi. Akroteleutia, zure karguari dagokion eginkizuna zehatz-mehatz azalduko dizut.

AKROTELEUTIA.— Agindu agintari goren horrek, eta zure nahiak ahalik eta hoberen 1160
betetzen saiatuko naiz.

PALESTRION.— Militarri iseka ezin hobeki egitea nahi dut, graziaz eta elegantziaz.

AKROTELEUTIA.— Ez dakizu zer nolako atseginez beteko ditudan zure esanak, ala
Kastor!

PALESTRION.— Nola egingo duzu?

AKROTELEUTIA.— Berarekiko maitasunez erabat txoratuta nagoela sinetsaraziko
diot.

PALESTRION.— Bikain!

AKROTELEUTIA.— Eta bere maitasunarengatik apurtuko dudala nire ezkontza,
berarekin ezkontzeko irrikatan nagoelako.

PALESTRION.— Horixe! Gauzatxo bat bakarrik: esaiozu etxe hau zure ezkonsaria
dela, eta zaharra etxetik joan dela dibortziatu zaretenean, berak inoren etxera sartzeko
beldurrik ez izateko.

AKROTELEUTIA.— Aholku egokia.

PALESTRION.— Etxetik ateratzen denean, zuk hemendik urrundik adierazi behar duzu
haren edertasunik zipitzik ere ez duzula, eta haren handitasunak ahoa bete hortz utzi 1170
zaituela; eta, aldi berean, goraiatu haren edertasuna, sinpatia, aurpegiera eta gorpuzkera
liraina. Argi dago?

AKROTELEUTIA.— Bai. Pozik egongo al zara nire egitekoa bikain betetzen badut,
inolako okerrik gabe?

PALESTRION.— Bai, nahikoa izango dut. Orain (*Pleusiklesi hitz egin*) zure txanda da.
Entzuidazu: hau dena gertatu eta Akroteleutia etxera sartu bezain laster, marinel jantzita

etorri behar zara. Jarri urdin²⁹ koloreko txano bat, artilezko adabaki bat begietan, urdin koloreko palio txo bat (hori baita marinelen kolorea) ezkerreko sorbaldan lotua, besoa kanpoan geratzen zaizula eta gerriko batekin lotuta: itsasontzi-patroi baten itxura izan behar duzu. Arropa hori guztia agurearen etxean daukazu, bere esklaboetako batzuk arrantzaleak dira-eta.

1180

AKROTELEUTIA.— Eta mozorroturik nagoenean, zer egin behar dut?

PALESTRION.— Filokomasiaren bila etorriko zara, deiez, haren amaren partez. Atenasera itzultzeko proposamena onartzen badu, zurekin joan dadila lehenbailehen eta ekipajea barkura eraman dezatela. Ez baldin badu joan nahi, esaiozu itsasoratu egingo zarela, haizea alde daukazuelako.

AKROTELEUTIA.— Atsegin dut, bai, ikuskizuna. Jarraitu.

PALESTRION.— Militarrak berehala esango dio joateko, amari ez itxoinarazteko.

1190

AKROTELEUTIA.— Zu bai gizon azkarra!

PALESTRION.— Filokomasiari esango diot militarrari eskatzeko ekipajea nik eramatea porturaino; portura joateko aginduko dit militarrak; eta han agertuko naiz, jakizu, zurekin batera Atenasera joateko.

PLEUSIKLES.— Eta bertara iristean, ez dut onartuko zuk esklabo izaten jarraitzerik: askatasuna emango dizut hiru egun baino lehen.

PALESTRION.— Mozorrotu eta arin ibili!

PLEUSIKLES.— Zerbait gehiago nahi duzu?

PALESTRION.— Esandako guztia kontuan izatea.

PLEUSIKLES.— Banoa (*Periplektomenoren etxera sartu*).

PALESTRION.— (*Akroteleutiari eta Milfidipari*) Zuek ere sartu oraintxe bertan,

²⁹ Latinez *ferrugineus* ‘burdin kolorea’, ondo zehaztu gabeko kolorea da. Euskarazko *urdinak* ere balio asko ditu: ‘azula’ (*begi urdinak*), ‘grisa’ (*ile urdina*), ‘berdexka’ (*gibelurdina*), ‘ubela’ (*kolpeek urdindua*), ‘gorrixka’ (*burdinaren urdina*).

berehala aterako baita militarra.

AKROTELEUTIA.— Zure esanak sakratuak dira guretzat.

PALESTRION.— Tira! Joan zaitezte (*Periplektomenoren etxera sartu*). Atea irekitzen ari da, juxtu une egokian! Irribarre zabala dakar; badirudi lortu egin duela. Atzeman ezingo duen itzal bati segika ari da, gizagaixoa!

BOSGARREN AGERRALDIA

PIRGOPOLINIZES, PALESTRION

PIRGOPOLINIZES.— Filokomasiarengandik desio nuena nahi bezala lortu diat, 1200 adiskidetsu eta adeitasunez.

PALESTRION.— Eta zergatik luzatu zara hainbeste hor barruan?

PIRGOPOLINIZES.— Inoiz ez diat sentitu emakume honek orain maite nauen beste maitatu natenik.

PALESTRION.— Zergatik diozu hori?

PIRGOPOLINIZES.— Zenbat berba, zenbat neke! Poliki-poliki, egurra txiki-txiki!³⁰ Baina, azkenean lortu diat nahi nuena. Nahi zuen guztia, eskatu duen guztia oparitu zioat. Hi ere opariaren parte haiz.

PALESTRION.— Ni? Opari? Baina... nolatan biziko naiz ni zu gabe?

PIRGOPOLINIZES.— Ez kezkatu, txo! Nik neuk ere askatasuna emango nian. Hi gabe joanarazten saiatu eta saiatu ibili nauk, baina, ezin izan diat lortu. Tematu egin duk.

PALESRTRION.— Ez dut jainkoengan eta zuregan esperantza guztiak jartzea besterik. Azkenean, nahiz eta zinez gaitza izango zaidan mundu osoko ugazabarik onena galtzea, 1210 kontsolaturik nago, zure edertasun berdingabeari esker eta nire etengabeko esfortzuen laguntzaz, emakume bizilagunarekin egoera honetan izatea lortu duzulako.

³⁰ Zerratzearen metafora.

PIRGOPOLINIZES.— Ez esan gehiagorik. Askatasuna eta aberastasuna emango dizkiat, lortzen baduk.

PALESTRION.— Zuri emango dizut lortutakoa.

PIRGOPOLINIZES.—Ezin diat gehiago itxaron.

PALESTRION.— Txukun jokatu behar dugu. Ez zaitez oldartu, baretu zure grina. Begira, hor dago emakumea! Etxetik ateratzen ari da.

SEIGARREN AGERRALDIA

MILFIDIPA, AKROTELEUTIA, PIRGOPOLINIZES, PALESTRION

MILFIDIPA.— (*Akroteleutiari, ahapeka*) Begira, ugazabandrea, hemen dago militarra.

AKROTELEUTIA.— Non?

MILFIDIPA.— Ezkerretara.

AKROTELEUTIA.— Ikusi dinat.

MILFIDIPA.— Begiratuiozu zeharka; ezin da konturatu begira gaudela.

AKROTELEUTIA.— Bazekinat. Maltzurrok are maltzurragoak izateko unea iritsi zaigun, ala Polux!

MILFIDIPA.— Zeuri dagokizu hastea.

AKROTELEUTIA.— (*Altuan*) Benetan hitz egin al dun berarekin aurrez aurre? (*Ahapeka*) Hitz egin ozen, entzun egin behar gaitun.

MILFIDIPA.— Bai, bai, aurrez aurre egin dugu hizketa, noski; lasaitasun osoz gainera, 1220 nahi nuen lain, eta inolako presarik gabe, nahi bezala.

PIRGOPOLINIZES.— (*Palestrioni*) Entzun al duk?

PALESTRION.— Entzun dut, jakina. Pozik dago zurekin egon delako!

AKROTELEUTIA.— Hik bai zortea, emakumea!

PIRGOPOLINIZES.— Nigatik txora-txora eginda zagok!

PALESTRION.— Merezi duzu.

AKROTELEUTIA.— Harrigarria dun hik lorturikoa: berarekin egon ahal izatea eta hark hire hitzak entzutea, ala Kastor. Esaten ditzen eskutitzez edo enbaxadore baten bitartez bakarrik hitz egin daitekeela berarekin, erregea bailitzan.

MILFIDIPA.— Lan nekeza izan zen beragana hurbiltzea eta berari erregutu ahal izatea, ala Polux!

PALESTRION.— Ezin ospetsuagoa zara emakumeen artean!

PIRGOPOLINIZES.— Zer egingo zioat ba, hori bada Venusen nahia?

AKROTELEUTIA.— Venusi esker onekoa natzaion eta gauza bakarra eskatzen zionat: hainbeste maite eta irrikatzen dudan gizona niretzat bakarrik edukitzea, hura nirekin onbera izatea, eta nire desioak harentzat nekagarri ez izatea. 1230

MILFIDIPA.— Hala izatea espero dut. Emakume asko eta asko dabiltza bere atzetik, baina berak denak baztertzen eta arbuiatzen ditu, denak, zu izan ezik.

AKROTELEUTIA.— Orduan beste gauza batek beldurtzen nain: hain apetatsua denez, agian, bere begiekin ikusten nauenean, iritiz aldatuko din eta haren dotoreziak nire itxura baztertuko din.

MILFIDIPA.— Ez du halakorik egingo, ez zaitez hain ezkorra izan.

PIRGOPOLINIZES.— Bere burua gutxietsi besterik ez dik egiten!

AKROTELEUTIA.— Uste dinat gehiegi goraiatu dunela nire edertasuna.

MILFIDIPA.— Berak uste duena baino ederragoa izango zara; neu arduratu naiz horrela izan dadin.

AKROTELEUTIA.— Ez banau emaztetzat onartzen, haren belaunetara lotuko nain eta erreguka hasiko natzaion, ala Polux. Lortzen ez badut, nire burua akabatuko dinat, ezin izango naun bera gabe bizi, inondik inora ere. 1240

PIRGOPOLINIZES.— Bere buruaz beste egitea galarazi behar zioat. Beragana

hurbilduko nauk?

PALESTRION.— Inolaz ere ez! Ez al duzu ikusten beragana hurbilduz gero, zure burua gutxietsiko duzula? Utziozu bera hurbiltzen zuregana, zure bila, zure desioz, zure zain. Zure ospea galdu nahi al duzu? Nik ohartarazi zaitut: ez ezazu inolaz ere halakorik egin. Hala maitatua izatea ez zaio beste inongo gizakumeari gertatu, biri baino: zeuri eta Lesbosko Faoni³¹.

AKROTELEUTIA.— Bere etxera sartuko naun, ala hik deituko dun bera ateratzeko, Milfidipa maitea?

MILFIDIPA.— Hobe da etxetik norbait atera arte itxarotea.

AKROTELEUTIA.— Baina ezin zionat etxera sartzeko gogoari eutsi.

MILFIDIPA.— Atea itxita dago.

AKROTELEUTIA.— Ba apurtu egingo dinat.

MILFIDIPA.— Zu ez zaude zeure onean.

1250

AKROTELEUTIA.— Noizbait maiteminak jota egon baldin bada, edo adimena edertasuna bezainbestekoa badauka, bere bihotz errukitsuak barkatu egingo zidan, maitasunak bultzatu nauelako horrela jokatzera.

PALESTRION.— Ene bada! Zuregatik maiteminez jota dago gaixoa!

PIRGOPOLINIZES.— Ni ere bai.

PALESTRION.— Ixo, ez dezala halakorik entzun.

MILFIDIPA.— Zergatik zaude hor geldi? Zergatik ez duzu atea jotzen?

AKROTELEUTIA.— Bila nabilena barruan ez dagoelako.

MILFIDIPA.— Nola dakizu?

³¹ Faon Lesbosen bizi zen mutil ezin ederragoa omen zen. Afrodita jainkosa bera maitemindu zuen, bai eta Safo ere. Safo behin eta berriro saiatu zen Faonen maitasuna lortzen, baina, ezinean, Leukadako itsas muturrera igo eta bere burua itsasora bota zuen.

AKROTELEUTIA.— Bazakinat, ala Polux, bazakinat! Nire sudurrak haren lurrina usainduko liken, hura barruan izanez gero.

PIRGOPOLINIZES.— Igarlea duk! Nirekin maiteminduta dagoenez, Venusek iragartzeko dohaina eman zio.

AKROTELEUTIA.— Hurbil zagon bila gabiltzan gizasemea; haren lurrina sudurrera heldu zaidan.

PIRGOPOLINIZES.— Sudurrarekin begiekin baino gehiago ikusten dik emakume honek, ala Polux!

PALESTRION.— Maitasunez itsu dagoelako.

AKROTELEUTIA.— Eutsi nazan, mesedez.

MILFIDIPA.— Eutsi? Zergatik?

AKROTELEUTIA.— Lurrera ziplo ez erortzeko.

MILFIDIPA.— Baina... zer gertatzen da?

AKROTELEUTIA.— Ezin diodala nire gorputzari eutsi; bihotza begietatik ateratzen zaidan. 1260

MILFIDIPA.— Militarra ikusi duzu, ala Polux!

AKROTELEUTIA.— Hala dun.

MILFIDIPA.— Ez dut ikusten. Non dago?

AKROTELEUTIA.— Hura maiteko bahu, ikusiko huke, ala Polux!

MILFIDIPA.— Zin degizut ez duzula nik baino gehiago maite, ala Polux! Zure baimena izango banu, noski.

PALESTRION.— Zu ikusi bezain laster maitemintzen dira emakumeak!

PIRGOPOLINIZES.— Ez zekiat noizbait aipatu diadan, baina ni Venusen iloba nauk.

AKROTELEUTIA.— Milfidipa maitea, hurbildu hadi beragana eta hitz egion.

PIRGOPOLONIZES.— Zer nolako errespetua didan!

PALESTRION.— Gugana dator.

MILFIDIPA.— Zuekin hitz egin nahi nuke.

PIRGOPOLINIZES.— Baita guk ere zurekin.

MILFIDIPA.— Agindu zenuen moduan, hona ekarri dut nire ugazabandrea.

PIRGOPOLINIZES.— Ikusi dut, bai.

MILFIDIPA.— Esaiozu gugana hurbiltzeko.

PIRGOPOLINIZES.— Gainerakoak baztertzen ditudan arren, zuk eskatu didazunez, ez dut zure ugazabandrea arbuiatuko.

MILFIDIPA.— Zugana hurbilduz gero, hitzik gabe geratuko da, ala Polux! Zuri 1270 begiratzen dizun bakoitzean, begiek mihia mozten diote.

PIRGOPOLINIZES.— Emakume honen gaitza sendatzea beste erremediorik ez dut izango.

MILFIDIPA.— Ikusi zaituen une beretik dardarka eta ikaraz dago!

PIRGOPOLONIZES.— Hori bera gertatzen zaie soldadu armatuei, pentsa! Ez da batere harritzekoa emakume bati ere gertatu izana. Baina, zer nahi du nik egitea?

MILFIDIPA.— Zu bere etxera joatea; zurekin bizi eta egon nahi du betiko.

PIRGOPOLINIZES.— Nolatan joango naiz bertara, ezkondata badago? Haren senarrak harrapatu egingo ninduke.

MILFIDIPA.— Inolaz ere ez. Etxetik bota du senarra, zugatik!

PIRGOPOLINIZES.— Eta nolatan egin du halakorik?

PALESTRION.—Etxea bere ezkonsaria delako.

PIRGOPOLINIZES.— Benetan ari al zara?

MILFIDIPA.— Bene-benetan, ala Polux!

PIRGOPOLINIZES.— Esaiozu etxera sartzeko, berehala joango naiz-eta!

MILFIDIPA.— Ez berandutu, entzun? Etzazu bere bihotza gehiago oinazetu.

1280

PIRGOPOLINIZES.— Ezetz, emakumea; zoazte.

MILFIDIPA.— Bagoaz (*Akroteleutiarekin sartu Periplektomenoren etxera*).

PIRGOPOLINIZES.— Baina, baina... zer ikusten ari nauk?

PALESTRION.— Zer?

PIRGOPOLINIZES.— Norbait zatorrek honantz marinel jantzita.

PALESTRION.— Gureganantz dator; zure bila, zalantzarik gabe. Itsasontziko patroia da hain zuzen.

PIRGOPOLINIZES.— Emakumearen bila zatorrek, ziur.

PALESTRION.— Hala uste dut.

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

PLEUSIKLES, PALESTRION, PIRGOPOLINIZES

PLEUSIKLES.— (*Bere kasa*) Jakingo ez banu zenbat eta zenbat ergelkeria egiten dituzten gizonak maitasunaren izenean, lotsatu egingo nindukean horrela jantzita etortzeaz. Baina bazekiat gizon askok doilorkeriaz eta zantarkeriaz jokatu dutela maitasunagatik; ez dut Akiles aipatuko, haren hirikideak hiltzen utzi baitzituen...³². Baina hona hemen Palestrion; militarrekin dagoenez, nire beste nortasuneko hizkera erabili behar diat. (*Altuan hitz egin*) Emakumeak Berandutzearen alabak dira: beste edozein berandutze, betiere emakumeak eragindakoa baino laburragoa izango baita. Uste dut emakumeen ohitura bilakatu dela. Baina ni Filokomasiaren bila etorri naiz. Atea joko dut. Norbait al da bertan?

1290

³² Agamemnonek Akilesek maite zuen emakumea, Briseida, beretzat hartu zuenez, Akilesek Troiako frontea utzi zuen.

PALESTRION.— Zer gertatzen da? Zer nahi duzu? Zergatik jo duzu gure etxeko atea?

PLEUSIKLES.— Filokomasiaren bila nator, bere amaren partetik. Hemendik joatea nahi baldin badu, lehenbailehen atera dadila. Dena berandutzen ari da, eta itsasoratu egin nahi dugu. 1300

PIRGOPOLINIZES.— Aspalditik dugu dena prest. Tira, Palestrion, joan zaitez morroi batzuen bila, urrea, bitxiak, arropa eta baliozko gauza guztiak itsasontzira eraman ahal izateko. Nire opari guztiak prest daude; eraman ditzala.

PALESTRION.— Ongi da.

PLEUSIKLES.— Arin ibili, ala Herkules!

PIRGOPOLINIZES.— Baietz, gizona! Aizu, zer duzu hor? Zer gertatu zaizu begian?

PLEUSIKLES.— Begia bere lekuan dut, ala Herkules!

PIRGOPOLINIZES.— Ezkerrekoa ez, eskuinekoa.

PLEUSIKLES.— Azaldu egingo dizut. Itsaso beteko maiteminaeren erruz, ezkerreko begia galdu dut. Itsaso beteko maiteminean murgildu ez banintz, ez nukkeen galduko. Baina larregi berandutzen ari zait.

PIRGOPOLINIZES.— Begira, irteten ari dira. 1310

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

PALESTRION, FILOKOMASIA, PIRGOPOLINIZES, PLEUSIKLES

PALESTRION.— Baina, baina.... noizbait utziko al diozu negar egiteari?

FILOKOMASIA.— Nolatan nahi duzu negarrik ez egitea? Nire bizitzako aro zoragarriena pasatu dudan tokitik joan behar naiz...

PALESRTRION.— Begira, hori da zure amaren eta ahizparen partez datorren gizona.

FILOKOMASIA.— Bai, ikusi dut.

PIRGOPOLINIZES.— Aizak, Palestrion.

PALESRTRION.— Zer nahi duzu?

PIRGOPOLINIZES.— Bidali norbait oparitu diodan guztia ateratzera.

PLEUSIKLES.— Agur, Filokomasia.

FILOKOMASIA.— Agur.

PLEUSIKLES.— Zure amak eta ahizpak goraintziak bidali dizkizute.

FILOKOMASIA.— Urte askotarako.

PLEUSIKLES.—Zu gurekin etortzeko eskatu didate, haizea gure alde dagoenez, itsasoratu ahal izateko. Zure amak begietako gaitza izan ez balu, biak batera etorriko ziratekeen hona.

FILOKOMASIA.— Banoa, gogoz kontra, baina banoa. †... ...†³³.

PLEUSIKLES.— †... † Zentzuzko emakumea zara.

PIRGOPOLINIZES.— Nirekin bizi izan ez balitz, oraindik ergel hutsa izango zen. 1320

FILOKOMASIA.— Zu bezalako gizon batengandik urrundu beharrak atsekabetzen nau, zure alboan edozein bihurtzen baita burutsu. Hain nengoen harro zurekin bizitzeaz... eta orain ohore horri uko egin behar diot.

PIRGOPOLINIZES.— Utzi negar egiteari.

FILOKOMASIA.— Zuri begiratzen dizudan bakoitzean, ezin dut ekidin.

PIRGOPOLINIZES.— Izan adorea!

FILOKOMASIA.— Nik bakarrik dakit zer nolako samina sentitzen dudan.

PALESRTRION.— Ez nau batere harritzen bere etxean gustura egon zarela jakiteak, bere edertasunak, gorpuzkerak eta ausardiak zure bihotza hunkitu izanak... zeren ni, esklabo hutsa izanda, berari begiratzen diodanean negarrez hasten naiz elkarrengatik banandu behar garelako.

³³ Jatorrizko testuaren zati bat galdu da hemen.

FILOKOMASIA.— Utziko didazu, arren, joan aurretik besarkada bat ematen?

PIRGOPOLINIZES.— Aurrera.

FILOKOMASIA.— Oi, ene begietako argia, ene bihotza! (*Zorabiatze-itxurak egin*) 1330

PALESTRION.— (*Pleusiklesi*) Eutsiozu emakumeari, arren. Ez dadila erori.

PIRGOPOLINIZES.— Zer gertatzen da?

PALESRTRION.— Zugandik urrundu behar denez, bat-batean zorabiatu egin dela. Gaixoa!

PIRGOPOLINIZES.— Sartu barrura eta ekarri ura, arin!

PALESRTRION.— Ez, urik ez. Hobe da apur batean atsedean hartzen badu. Ez sartu tartean bere onera bueltatzen den arte.

PIRGOPOLINIZES.— (*Pleusiklesek Filokomasia musukatu*) Bi hauen buruak gertuegi daude elkarrengandik. Ez dut atsegin. Kendu zure ezpainkoteak bere ezpainetatik, marinel horrek! Erne!

PLEUSIKLES.— Arnasa hartzen ote duen jakin nahi nuen.

PIRGOPOLINIZES.— Belarria harengana hurbiltzea besterik ez zenuen, orduan.

PLEUSIKLES.— Nahi baduzu, askatu egingo dut.

PIRGOPOLINIZES.— Ez, ez, eutsiozu.

PALESRTRION.— Ai ene dohakabea!

PIRGOPOLINIZES.— (*Etxeko esklaboei*) Irten eta atera emakume honi oparitu diodan guztia!

PALESRTRION.— Eta orain zu agurtu behar zaitut, alde egin aurretik, etxe honetako Larea³⁴. Eta zuok guztiok, morroi eta neskame, esklabotzako bidelagunak, zoriontasuna 1340 eta osasuna izan dezazuela. Zuen artean ongi hitz egin, baita nitaz ere, nahiz eta zuengandik urrun egon.

³⁴ Larea (latinez *Lar*) Erromako mitologian, etxeko jainkoa da, etxearen babeslea.

PIRGOPOLINIZES.— Tira, Palestrion, eutsi goiari.

PALESRTRION.— Zugandik urruntzean, ezinezkoa zait negarrari eustea!

PIRGOPOLINIZES.— Izan adorea.

PALESTRION.— Nik bakarrik dakit zer nolako atsekabea sentitzen dudan!

FILOKOMASIA.— Baina, baina... zer da hau? Zer gertatu da? Zer ikusten ari naiz? Ene argia...!³⁵

PLEUSIKLES.— Hobeto al zaude?

FILOKOMASIA.— Ene bada! Nor ari naiz besarkatzen? Burua galdu al dut?

PLEUSIKLES.— Ez kezkatu, laztana.

PIRGOPOLINIZES.— Zer esan nahi dik horrek?

PALESTRION.— Konortea galdu du. Beldur naiz ez ote den dena agerian geratuko!³⁶

PIRGOPOLINIZES.— Dena? Zertaz ari haiz hizketan?

PALESTRION.— Dena hiri guztitik eramateaz ari naiz, ez ote den jendea gaizki esaka 1350
hasiko.

PIRGOPOLINIZES.— Nik neurea oparitu zioat, eta ez beste inorena. Bost axola zaidak jendeak zer esaten duen. Tira, joan zaitezte behingoan, jainkoak lagun.

PALESTRION.— Nik zugan pentsatuz esan dut, besterik ez.

PIRGOPOLINIZES.— Bazekiat.

PALESTRION.— Banoa, agur.

³⁵ Filokomasiaren hitzek esanahi bikoitza dute: eguneko argia agurtzen du, baina baita Pleusikles ere, bere bizitza argitzen duen maitea. Filokomasiak arduragabeki jokatu du, iruzurra bistaratzeko arriskuan jarri duelako. Gerora, ezezagun baten besoetan dagoela aipatzean, esandako arduragabekeriari irtenbidea eman dio.

³⁶Palestrionen hitzek bide bikoitza dute: militarri ari zaio hizketan, baina Filokomasia eta Pleusikles ohartarazteko esaten du.

PIRGOPOLINIZES.— Agur zuri ere.

PALESTRION.— Joan zaitezte aurretik, eta laster izango naiz zuekin; zerbait esan nahi diot ugazabari (*Joan*). Beste esklabo batzuk ni baino leialagotzat izan dituzun arren, eskerrak eman nahi dizkizut, eta, zuk nahi izan bazenu, hamaika aldiz nahiago izango nukeen zure esklabo izatea beste baten libertoa izatea baino.

PIRGOPOLINIZES.— Izan adorea!

PALESTRION.— Burura datorkidan bakoitzean nire ohiturak errotik aldatu behar ditudala, andreen ohituretara egokitzeko, militarrenak bazterturik... Ai ene!

PIRGOPOLINIZES.— Gogorra eta zorrotza izaten saiatu hadi.

1360

PALESTRION.— Ezinezkoa izango zait, gogoia galdu dut.

PIRGOPOLINIZES.— Tira, joan hadi haiekin, ez atzeratu.

PALESTRION.— Agur.

PIRGOPOLINIZES.— Agur zuri ere!

PALESTRION.— Ez ahaztu nitaz. Noizbait apika gizon librea bihurtzen banaiz, jakinarazi egingo dizut, ahaztu ez nazazun.

PIRGOPOLINIZES.— Ez diat halakorik egiten.

PALESTRION.— Pentsa zer fidela izan natzaizun beti. Hala egiten baduzu, jakingo duzu azkenik zurekin nork jokatu duen ongi eta nork gaizki.

PIRGOPOLINIZES.— Bazekiat, askotan konturatu izan nauk horretaz. Baina, gaur inoiz baino gehiago.

PALESTRION.— Badakizu? Gaur egiten ari naizenarekin argiago izango duzu.

PIRGOPOLINIZES.— Nekeza egiten zaidak geratzeko ez agintzea.

PALESTRION.— Ez, ez egin halakorik. Gezurti eta traidore bat zarela esango dute, nitaz gain ez duzula beste esklabo fidelik. Zure ohorea hondatuko ez balitz, nik neuk 1370 erregutuko nizuke egiteko. Baina ezinezkoa da, ezta pentsatu ere.

PIRGOPOLINIZES.— Tira, joan hadi! Dena delakoa jasango diat.

PALESTRION.— Ondo ibili!

PIRGOPOLINIZES.— Hobe ausarta izatea!

PALESTRION.— Ondo baino hobeto ibili!

PIRGOPOLINIZES.— (*Bere kasa*) Esklabo gaiztotzat izan diat betidanik, baina orain konturatu nauk zein fidela izan zaidan. Ongi pentsatuta, tontakeria galanta egin diat hura joaten uztearekin. Orain nire maitearen bila noak. Baina, ate-zaratak entzun dizkiat...

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

ESKLABO GAZTE BAT, PIRGOPOLINIZES

ESKLABO GAZTEA.— (*Periplektomenoren etxetik atera eta etxe barrurantz hitz egin*)

Utzi aholkuak emateari, ongi baino hobeto dakit zer egin behar dudan; dagoen tokian 1380 dagoela aurkituko dut, kostahala kostahala.

PIRGOPOLINIZES.— Nire bila dabil. Beragana hurbilduko nauk.

ESKLABO GAZTEA.— Aizu, zeure bila nabil. Agur, gizon atsegin hori, dotoreziaz beterikoa, bi jainkok beste inor baino gehiago maite dutena!

PIRGOPOLINIZES.— Bik? Zeintzuek?

ESKLABO GAZTEA.— Martek eta Venusek.³⁷

PIRGOPOLINIZES.— Bai mutil argia!

ESKLABO GAZTEA.— Nire ugazabandreak zu barrura sartzea nahi du. Zeu nahi zaitu, zeu desiratzen zaitu, zeure esperoan dago esperantzaz beterik. Lagundu maite zaituenari. Zergatik gelditu zara? Zergatik ez zara barrura sartzen?

PIRGOPOLINIZES.— Oraintxe noa (*Barrura sartu*).

ESKLABO GAZTEA.— Bera bakarrik erori da sarean. Segada prestatua dago etxe

³⁷ Gerraren eta maitasunaren jainkoak, hurrenez hurren.

barruan. Agurea zain dago ezkontza-nahasle horri lepotik heltzeko, txotxolo hau hain 1390
harro baitago bere edertasunaz, non uste baitu emakume guztiak berarekin maitemintzen
direla ikusten dutenerako; baina egiazki guztiek gorrotatzen dute, emakumeek zein
gizonek. Orain zalapartan sartuko naiz, oihuka ari dira barruan eta!

V. EKITALDIA

AGERRALDI BAKARRA

PERIPLEKTOMENO, PIRGOPOLINIZES, KARION, ESKLABO BORREROAK,
ESZELEDRO

PERIPLEKTOMENO.— Ekarri ezazue! Etorri nahi ez badu, atera ezazue tatarrez eta
zeruaren eta lurraren artean zintzilikatu: laurdenkatu ezazue.

PIRGOPOLINIZES.— Entzun, arren, Periplektomeno, ala Herkules!

PERIPLEKTOMENO.— Alferrik ari haiz Herkulesen izenean erregutzen! Karion,
egiaztatu ea labana ongi zorrotzuta dagoen.

KARION.— Zorrozturik? Irrikatan dago lotsagabe horri izartea husteko eta kaskabiloak
lepoan zintzilikatzeko, umetxoei bezala!

PIRGOPOLINIZES.— Nireak egin du!

PERIPLEKTOMENO.— Ez, oraindik, ez. Goiz duk hori esateko.

KARION.— Helduko diot?

1400

PERIPLEKTOMENO.— Ez, itxaron. Aurrena makilarekin egurtuko diagu.

KARION.— Gogor, gainera.

PERIPLEKTOMENO.— Nolatan ausartu haiz beste baten emaztea seduzitzen?
Lotsagabe halakoa!

PIRGOPOLINIZES.— Jainkoek lagundu nazatela! Bera etorri zen nigana!

PERIPLEKTOMENO.— Gezurra! Emaiok!

PIRGOPOLINIZES.— Itxaron, dena kontatuko dizut-eta.

PERIPLEKTOMENO.— (*Esklaboei*) Zergatik geratu zarete?

PIRGOPOLINIZES.— Ezin al dut hitz egin ere?

PERIPLEKTOMENO.— Ea, bota.

PIRGOPOLINIZES.— Emakumearen etxera joateko eskatu zidaten.

PERIPLEKTOMENO.— Eta zergatik ausartu haiz etortzen? (*Jipoitu*) Tori!

PIRGOPOLINIZES.— Ai, ai! Nahikoa egurtu nauzue. Gelditu, arren!

KARION.— Noiz moztuko dizkiot?

PERIPLEKTOMENO.— Nahi duzunean! Etzanaraz ezazue, eta luzatu haren hanka eta besoak zabal-zabal!

PIRGOPOLINIZES.— Entzun nire hitzak, ala Herkules, ezer moztu baino lehen!

PERIPLEKTOMENO.— Hitz egin!

PIRGOPOLINIZES.— Nik uste nuen libre zegoela, ala Herkules; hori esan zidan haren 1410 neskame bitartekariak.

PERIPLEKTOMENO.— Zin egin, hemendik bizirik ateratzen bahaiz, ez dukela inortxorekin ere mendeku hartuko jasotako jipoiatatik edo jasoko dukenagatik, Venusen ilobatxo horrek!

PIRGOPOLINIZES.— Zin dagizut, Jupiterren eta Marteren amorearren, ez dudala inorekin mendeku hartuko jasotako jipoiatatik eta, gainera, ongi merezita dudala aitortzen dut. Eta hemendik bi txilinekin³⁸ ateratzea lortzen badut, pentsatuko dut nire erruak ez duela zigorrik jaso.

PERIPLEKTOMENO.— Eta hire hitza betetzen ez baduk, zer?

³⁸ Plautok *intestatus* hitzaren esanahi bikoitzarekin osatu zuen jolasa: ‘zigorrik gabe’ eta ‘barrabilik gabe’. Euskaraz, joko hori islatzeko *txilinak* hitzaren erabilera bikoitza baliatu dut: ‘epailearen boterea’ eta ‘barrabilak’.

PIRGOPOLINIZES.— Bizi osorako txilini gabe gera nadila.

KARION.— Jo ezazue gupida gabe eta, gero, utzizue joaten.

PIRGOPOLINIZES.— Jainkoek babestu zaitzatela ni defenditu izanagatik.

KARION.— Orduan, emadazu urrezko mina³⁹ bat.

1420

PIRGOPOLINIZES.— Zergatik?

KARION.— Zure txilini osorik dituzula askatzeko, Venusen ilobatxo hori. Bestela, ez duzu hemendik alde egingo, ez izan inozoa!

PIRGOPOLINIZES.— Ordainduko dut.

KARION.— Erabaki egokia hartu duzu. Baina, tunika, klamidea eta ezpata ere ez dituzu eramango.

BORREROA.— (*Periplektomenori*) Berrir astinduko dut ala joateko baimena emango diot?

PIRGOPOLINIZES.— Nahikoa eman didazue jadanik! Erruki!

PERIPLEKTOMENO.— Askazazue.

PIRGOPOLINIZES.— Eskerrik asko.

PERIPLEKTOMENO.— Baina, hemendik berrir ikusten bahaut, ez da gehiago txilini izango.

PIRGOPOLINIZES.— Ez dut istilurik sortuko.

PERIPLEKTOMENO.— Goazen etxera, Karion.

PIRGOPOLINIZES.— Hemen zatozak nire esklaboak. Aizak, Eszeledro, abiatu al duk Filokomasia?

ESZELEDRO.— Bai, aspaldi.

PIRGOPOLINIZES.— Ai ene bada!

³⁹ *Mina* txanpon bat dugu. Gutxi gorabehera, 60 minak talentu baten balioa zuten.

ESZELEDRO.— Are gehiago atsekabetuko zinake nik dakidana jakingo bazenu; begia 1430
estalita zeukan gizona ez baitzen marinela.

PIRGOPOLINIZES.— Nor zuan, orduan?

ESZELEDRO.— Filokomasiaren maitalea!

PIRGOPOLINIZES.— Nolatan dakik?

ESZELEDRO.— Hiriko atetik atera bezain laster, elkar besarkatutik eta etengabe
musuka joan direlako.

PIRGOPOLINIZES.— Ai ene dohakabea! Engainatu egin naitek. Palestrion izan duk
tranpan erorarazi nauena, zital halakoa! (*Isilune baten ostein*) Baina... aitortu beharra
dut ongi merezita nuela, bai. Gainerako gizon adulteroei berdina gertatuko balitzaie,
gutxiago egongo lirateke, zuhurtzia handiagoz arituko lirateke eta ez lukete halako
estualdiak pairatzeko gogorik izango. (*Esklaboei*) Goazen etxera. (*Publikoari*) Egin
txalo.

4. BIBLIOGRAFIA

- Alberdi, X., 1993, “[Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak](#)”, *Fontes Linguae Vasconum* 64, 434-439.
- Alberdi, X., 1996, [Euskararen tratamenduak: erabilera](#), Bilbo: Euskaltzaindia.
- Aldekoa, I. eta Olaziregi, M. J., 2012, *Literatura Unibertsala*, Donostia: EIZIE, Erein, 39.
- Bravo, J.R. (itz.), 1995, *Plauto. Comedias II*, Madril: Cátedra.
- Cillero, J., 1996, “[Kultur hitzen itzulpena literatura testuetan](#)”, *Senex*, 18, 25-54.
- Ciruelo, J.I. (itz. ed.), 1975, *Plauto. Miles gloriosus - El militar fanfarrón*, Bartzelona: Bosch.
- Ernout, A. (itz. ed.), 1932, *Plaute. Comédies IV*, Paris: Les Belles Lettres.
- Euskaltzaindia, 1997, *76 araua: Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*.
http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0076.pdf [Kontsulta: 2018/05/19]
- Euskaltzaindia, 1998, *82 araua: Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak*.
http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0082.pdf [Kontsulta: 2018/05/19]
- González-Haba, M. (itz.), 1996, *Comedias II: La comedia de la arquilla; Gorgojo; Epídico; Los dos menecmos; El mercader; El militar fanfarrón; La comedia del fantasma; El persa*. Madril: Gredos.
- Lizartza, R., 2009, *Hitanoa mintza hadi, lagun!: hika egiten ikasteko eskuliburua*, Donostia: Mara Mara.
- Mañas, M. (itz.), 2003, *Plauto. El soldado fanfarrón*, Cáceres: Universidad de Extremadura.
- Melo, W. de (itz. ed.), 2011, *Plautus III. The Merchant; The Braggart Soldier; The Ghost; The Persian*, Cambridge MA, Londres: Harvard University Press [Loeb Classical Library].

Nixon, P. (itz. ed.), 1916, *Plautus III. The Merchant; The Braggart Warrior; The Haunted House; The Persian*, Londres: William Heinemann / New York: G. P. Putnam's Sons.

Revuelta, L., 2017, *Estrategias de domesticación y extranjerización en la traducción literaria*, Madrid: Universidad Pontificia Comillas. [Gradu Amaierako Lana] <https://repositorio.comillas.edu/xmlui/bitstream/handle/11531/21569/TFG001518.pdf?sequence=1> [Kontsulta: 2018/05/19]

Riley, H.T. (itz. ed.), 1912, *Plautus. The comedies of Plautus*, Londres: G. Bell and Sons.